



Sasi guztien gaineratik, laino guztien azpitik

Gerediagako foru zelaian sinatutako manifestuaren bidez, hainbat ordezkari politikok barkamena eskatu diete sorginkeria leporatuta errepresioa jasan zutenen ondorengoei. Sorgin ehiza horren inguruko gogoeta egin du Iñaki Bazan historia irakasleak. • 2-3

Milaka lagun jai giroan batu dira giza katera Durangaldean, erabakitze eskubidea aldarrikatzeko

Durangaldea | Gure Esku Dago dinamika giza katea antolatu zuen eskualdean joan zen domekan, jai giroan. Milaka lagunek erabakitze eskubidearen aldarria kaleratu zuten elkarri eskutik helduta. Giza kateak Mallabia, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Durango, Iurreta eta Zornotza lotu zituen, ordu erdiz. Mobilizazioak 175.000 pertsona bildu zituen Donostia, Bilbo eta Gasteiz artean. Ehunka boluntariok jardun zuten lanean ekimena antolatzen. • 5



Mallabiak ez du Gipuzkoako hondakinik jasoko

Mallabia | Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek akordio bat adostu dute. Ondorioz, Gipuzkoak badu hondakin soberakina nora eraman, Mallabiar bideratu beharrik barik. Aurten 20.000-25.000 tona artean hartuko ditu Bizkaiak. 2019an 65.000 tona hondakin tratatuko dituzte, gehienez. **4. orrialdea**

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



LEKU TXIKIETAKO LANETARAKO IRTENBIDEA



HONDEAMAKINA
TXIKIA 1000 KG.



BELDAR-DUMPER
TXIKIA



Iñaki Bazan Diaz
EHUko Historia
irakaslea
Lekeitio | 1962

heretikoek eta Anbotoko sorginen artean. Heretikoak 1442 bueltan zigortu zituzten, eta sorginak 1507 inguruan. Heretikoek liderrak frantziskotarrak ziren, eta Eliza eraldatzea gura zuten, gero Luterok egin zuen bezelako. Durangon ere horrelako mugimendu bat egon zen. Etxe bat eraiki zuten emakume alargunak eta txiroak jasotzeko, eta frantziskotarren arauak onartu zituzten. Mella eta abar ziren liderrak, eta euren ideiak zabaltzeko aprobetxatu zuten. Sorginak, bestalde, elizaren kanpo zeuden ideologia aldetik. Elizaren ustez, deabruaren aldekoak ziren. Berez, txiroak edo zorigaitzean eroriak ziren gehienak, emaginak, euren senideak... Ihes egin zuten. Euren aitortpenak torturen bidez lortzen zituzten inkisidoreek.

Deabrua gurtzen zutela, botereei esker jendea kalte eragiten ziotela, hegan egiten zutela... Gauza asko leporatzen zizkieten sorginei.

Erdi Aroa atzeratuta zegoen zientziaren ikuspegitik. Anbotora begiratu eta lainotuta zegoela tximista jausten ikusten bazenuen, ez zeneukan horretarako erantzunik. Seguraski Jaungoikoaren zigor bat izango zela uste zuten. Anbotoko Marik trumoiak sortzeko boterea zuela uste zen. Lurrak berarengandik babesteko, nekazariak akerebeltzak zituzten. Gauzak nahasten ziren. Seme bat gaixorik eduki eta petrikiloa etortzean etxera, hiltzen bazen, errua hari botatzen zioten. Deabruagaz tratatu bat zuela umearen arima hari eramateko... Dena zen gezurra, baita akelarreak ere. Petrikiloen nahaski batzuek belladonna belar haluzinogenoa zuten, eta hori hartuta, batzuek esaten zuten deabrua ikusi zutela edo hegan egiten zutela. Gero inkisidorea agertzen zen herrian eta auzokideek salatu egiten zituzten.

Jarraitu eta zigortuetako gehienak emakumeak ziren. Zure ustez, zergatik gertatu zen hori?

Garai hartako misoginiagatik. Paradisua zergatik galdu genuen? Evagatik. Hortik aurrera, emakumeek erru hori eraman dute motxilan. Erdi Aroan, elizak hori aipatzen jarraitzen zuten; Adani sagar bat eman ziola, sinbolo bat zela, eta benetako arazoa sexua zela. Arima galtzen zela, eta gure jarrera oso zintzoa izan behar zela esaten zuten. Emakumea beti gizona zirikatzeko zebilela, sexua edukitzeko. Eta norik pizten zuten sexu gogoak? Deabruak. Emakumearen eta deabruaren lotura hortik zetorren.

“XV. mendean 70 herritar baino gehiago erre zituzten Durangon, heresia leporatuta”

Durangoko heretikoekin eta Anbotoko sorginekin inkisizioak garatutako auzien inguruko ikerketak landu ditu Bazanek

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Elizak eta agintari publikoek gidatutako inkisizioak gogor zigortu zuen disidentzia XV. eta XVII. mendeen artean. Euskal Herrian, Durangaldea izan zen sorgin ehiza indarrez zabaldu zen lurraldeetako bat, eta pertsona asko kartzelaratu eta erre zituzten, edo elizatik kanporatu eta gizartearen aurrean markatu. Nabarmenezkoa da gehienak emakumeak zirela. Baina, zergatik? Zer zegoen inkisizioaren atzean? Benetako al zen sorginkeria? Durangoko heretikoek eta Anbotoko sorginen inguruko ikerketak garatu ditu Iñaki Bazanek; historia irakaslea izateaz aparte, Durangoko Krimenaren Historia Zentroko zuzendaria da.

Zapatuko ekitaldian azaldu zenez, Durangaldeko alkateek ez zuten sinetsi Alonso Salazar Frias inkisidorearen bertsioa. Elizaren eta agintarien inkisizioari kritikoak sortu zitzaizkion, barnean ere bai.

Inkisizioa mahai misto bat zen. Alde batetik, eliza zegoen, eta bestetik, agintari publikoak; kasu honetan, Gaztelako koroa. Garai hartako testuingurua sinesmena zen. Apurka-apurka, gero eta jende gehiago esaten hasi zen sorgin-

keriarena ezinezkoa zela. Salazar Friasek Zugarramurdiko mahaian esan zuen arraroa iruditzen zitzaiola eta akaso ez zela egia izango. Hori esateagatik prozesu bat jaso eta espetxeratuta egon zen. Epailea zen, baina ia-ia sorginen abokatu bezelako amaitu zuen. Hortik aurrera, kasik ez zen egon sorginkeriarik buruzko prozesurik. Sorgin ehiza XV. mendean hasi zen, eta bere une garrantzitsuenak XVI. eta XVII. mende artean egon ziren, hori izan zen unerik kritikoena. Batez ere Europako estatu protestanteak izan ziren gogorrak sorginkeriaz. Zugarramurdira ere Bordeleko [Frantzia] parlamentutik etorri zen gaia; han prozesu bat zabaldu eta jendeak Nafarroara ihes egin zuten. **Zure ikerketen arabera, Durangoko heretikoek auzian 70 pertsona erre zituzten XV. mendean.**

Bai. 100 bat herritar egon ziren auzipetuta, eta 70 baino gehiago erre zituzten, heresia leporatuta. Zigor orokorra eskumikatzea edo elizatik ateratzea zen; ezin ziren mezara joan, ezin zuten jaunartzea egin, ezin ziren hilerrian sartu... Kristau batentzat, kasik heriotza zen hori. Gero, batzuentzat barkamena etorri zen. Baina berdin pentsatzen jarraitu zuten erre egin zituzten.

Durangon 12 inguru, eta besteak beste Santo Domingo de la Calzadara eta Valladolidera [Espainia] eraman zituzten. Durangon, Kurutzia gogor kurutztean erre zituztela uste da. Abadeak sermoia botatzen zuten zigortuaren erruari buruz, eta zere monia publiko horretan herritar guztiak egotera derrigortuta zuden. Hauxe zen mezua: horrelako jarrera edukiz gero, begira zer gertatu ahal zaizun. Jende guztiaren aurrean ematen zion sua borrarero batek.

Durangon ezarri zuten inkisizioaren Euskal Herriko lehen auzitegia.

“**XVI. mende hasieran, 1507 inguruan, 23 pertsona epaitu zituzten inkisizio tribunalak**”

“**Heretikoek liderrak frantziskotarrak ziren, eta Eliza eraldatzea gura zuten, gero Luterok egin zuen bezelako**”

Gaztelan 1478an sortu zen auzitegia, eta Durangon 1499an ezarri zuten. Gauza arraro asko ikusi zituzten Kalagurriko auzitegitik, eta Durangon ere eraikitzea erabaki zuten. Frias lizentziatua eta Arriaga maisua ziren inkisidoreak. Langile guztien izenak ere badauzkat. Abizen guztiak hemengoak ziren.

Gero, Anbotoko sorginen auzia etorri zen, hori ere garrantzitsua.

XVI. mende hasieran, 1507. urte inguruan, 23 pertsona epaitu zituzten inkisizio tribunalak. 17ri heriotza zigorra ezarri zieten; hauetatik 7 hilda zeuden jada sententzia ateratzean, eta hilobitik atera eta erre egin zituzten. Zeruan arima eta gorpua berriro batuko zirela uste zuten, eta horregatik, erreta, gorpurik barik infernua betiko gertatu zela esaten zen. Beste seiek akatsa onartu zuten, eta sanbenitoa ipini zieten, egunero soinean eraman behar zuten arropa berezia. Betiko markatzen zituzten gizartearen aurrean. 1507tik aurrera ere gertatu ziren prozesuak, baina kasu solteak izan ziren, gehiago aztiakin edo belagileekin lotutakoak. **Zure ikerketan, Durangoko heretikoak eta Anbotoko sorginak bereizten dituzu. Zergatik?** Ez zegoen erlaziorik Durangoko



Durungaldeko dantzarien soka-dantza amaitzeko, ordezkari politikoak atera zituzten dantzatzera.

Ordezkarri politikoek barkamena eskatu dute orain 400 urte ezarritako sorginkeria zigorrenatik

Berdintasuna eta pentsamendu askatasuna aldarrikatuz manifestua sinatu dute Durungaldeko udaletako, Amankomunazgoko eta Bizkaiko Batzar Nagusietako arduradun politikoek

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Anbotoko Mari sorginaren mitoak mendeetan zehar iraun du Durangaldean. Baina, mitologiatik harago, orain 400 urte baino gehiago hainbat pertsona kartzelaratu eta hil zituzten Euskal Herrian sorginkeria leporatuta, baita Durangaldean ere. 1618an, Astolako kartzelan sorginkeriagatik salatuta zeuden azken emakumeak askatu zituzten, sasoi berri bati ateak zabalduz. Orain dela 400 urte ezarritako sorginkeria zigorrak gogoratu gura izan zituzten Gerediaga elkarteak joan zen zapatuan Merinalde Egunean. Gerediagako foru zelaian izan zen ekitaldia, eta bertan Durungaldeko, Batzar Nagusietako eta Amankomunazgoko ordezkari politikoek barkamena eska-

tzeko manifestua sinatu zuten. Ekitaldian, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentek sorginkeria leporatuta errepresioa jasan zuten emakumeen inkonformismoa eta emakume anonimo horien ikusezintasuna argitara ateratzeko beharra nabarmendu zuen.

1618an, Astolako kartzelan sorginkeriagatik salatuta zeuden azken emakumeak askatu zituzten

Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentek, berriz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta pentsamendu, kon-

tzientzia, adierazpen eta sinesmen askatasuna aldarrikatu zituen.


Ordezkarri politikoek sinatuta-

"Sasoiko fidelen oinordekoak garen aldetik, barkamena eskatu gura genieke haien ondorengoei"

ko manifestuak jasotzen duenez, "sasoiko fidelen oinordekoak garen aldetik, eta herritarrek emandako agintea erabiliz, barkamena eskatu gura genieke haien ondorengoei, orain 400 urte pentsamendu askatasunaren aurka hartutako erabakiek sortutako min eta saminengatik".



Ordezkarri politikoek eta Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentek manifestua sinatu zuten Gerediagako basilizan.



Astolako Dorrea

Amankomunazgoaren eraikina kartzela izan zen 1843ra arte



Astolako Dorrea (Kartzela)

GEREDIAGA ELKARTEA

1576. urtean, Astolako dorrea Durangoko Merindadeko gune politiko-administratiborik garrantzitsuenetariko bat bilakatu zen, bertan jarri baitzituzten entzungela eta espetxea.

Bertan bizi zen Merindadeko Teniente Korrejidorea, laguntzaileekin batera. Kartzela ere bazen. Gizonezkoena lehen solairuan zegoen, eta emakumezkoena, berriz, ganbaran.



Kurutziagako kurutzea

Kurutziagako kurutzearen inguruan erretzen ei zituzten sorginkeria leporatutako pertsonak

Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek adostu duten lankidetzaren hitzarmenari esker, Mallabiak ez du azkenean Gipuzkoako hondakinik hartuko

Bizkaian, Garbiker erakunde publikoaren bidez kudeatuko dituzte Gipuzkoako hondakinak aurten eta datorren urtean

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabiak ez du Gipuzkoako hondakinik jasoko. Lurrealde bietako aldundiek adostu duten lankidetzaren hitzarmenari esker, Gipuzkoak bermatuta du bere azpiegiturretan hartu ezin duen hondakinaren tratamendua. Beraz, bere sasoiari abiatutako lehiaketa publikoa bertan behera utziko dutela aditzera eman zuen Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako Aldundiko Ingurumen diputatuak aurreakordioaren berri eman zuen agerraldian. "Ez da lehiaketa publikoaren prozesuagaz aurrera jarraitzeko beharrik egongo. Heine batean, Bizkaiko Aldundiak irtenbidea eskaini badigu, hondakinak

Abiatutako lehiaketa atzera botako zutela aditzera eman zuen Gipuzkoako Ingurumen diputatuak

beste herri batera ez bidaltzeko izan da, kasu honetan Mallabiara", adierazi zuen. Lehiaketa horretara aurkeztu zen hautagai bakarra Mallabiko Betearte enpresa izan zen.

Udal ordezkarien balorazioa

Gipuzkoako soberakina herrian jasotzearen aurka agertu da hasieratik Mallabiko Udala, eta udal ordezkariak euren esku zegoen guztia egiteko prest agertu izan dira hori gertatu ez zedin. Beraz, Igor Agirre alkateak "pozik" hartu du akordioaren albiste. "Eskerrak eman gura dizkiot Bizkaiko Aldundiari eta Aldundiko Ingurumen diputatu Elena Unzuetai. Ahalegin handia egin du arazoari irtenbidea bilatzeko", adierazi du. EH Bilduko zinegotzi Aitor Loiola ere "pozik" agertu da, baina baita kezkatuta



Udalak herri batzarra egin zuen, martitzenean, herritarrek informatzeko.



IGOR AGIRRE

"Eskerrak eman gura dizkiot Elena Unzuetai. Ahalegin handia egin du"

ere, zaborraren kudeaketan eredu aldaketa baten beharra ikusten duelako lehenbailehen. "Arazoak hor darrai, Bizkaian eta Gipuzkoan errauskailuan oinarritzen dutelako

zaborren kudeaketa. Urte berrira, Europako araudi berrira moldatzeko pausoak ematen hasi beharra dago", uste du Loiola zinegotziak.

Akordioa datutan

Gipuzkoako Hondakin Kontsorzioak martitzenean onartu zuen aldundien arteko aurreakordioa, botoen %83agaz. Egun berean,

Bizkaian Aldundiko Gobernu Kontseiluan onartu zuten eta batzar orokorrera datorren hilean eramango dute seguruenik, Aldundiko iturrien arabera.

Lotutako hitzarmenean aldi bi bereizten dira. Aurtengo urtea amaitu arte, 20.000 eta 25.000 tona hondakin artean hartuko ditu Bizkaia. 2019an, aldiz, 25.000 eta 65.000 artean. Bizkaian Garbiker erakundearen bidez kudeatuko da.

Ordaibar haranera egunpasa antolatu dute jubilatuen elkarteak eta udalak

MAÑARIA • J.D.

Ursula Donea jubilatuen elkarteak eta Mañariko Udalak Nafarroako Ordaibar haranerako egunpasa antolatu dute ekainaren 30erako. Goizean Orisoain

Orisoain herriko ekomuseoa eta elizako kriptak erromanikoak bisitatuko dituzte

herriko ekomuseoa eta elizako kriptak erromanikoak bisitatuko dituzte, eta bazkalostean Lizarrara joango dira. Izena emateko azken eguna ekainaren 26a da, jubilatuen lokalean edo udaletxean (24 euro).



Santa Agedako aterpea jaietan.

Angelman elkarteak hartuko du Santa Agedako taberna

IZURTZA • J.D.

Izurtzako jaietako egun handia Santa Ageda ermitaren inguruan antolatzen dute. Irailaren 8an izango da aurten, eta mezaren ostean dantzak eta jai giroa izaten dira ermitaren inguruan. Inguruko aterpean jan-edanerako taberna bat jarzten dute, eta Durangaldeko Angelman Sindromea elkarte baina ez da aurkeztu udalak ardura hori hartzeko egindako deialdira. Hirugarren urtez kudeatuko dute taberna.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko ekainaren 15a
16. urtea - 725. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Durango jende andana batu zen, 1.500 lagunetik gora.



Abadiñon kalejira egin zuten txistulariekin.

Erabakitzeko eskubidea eztabaidara eramane duen giza kate erraldoia

Emozioz betetako irudiak utzi zituen domekan Gure Esku Dagok deitutako giza kateak; milaka herritarrek jai giroan aldarrikatu zuten erabakitzeko eskubidea bide bazterrean

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Eskutik helduta, erabakitzeko eskubidea aldarrikatu zuten domekan milaka herritarrek, eta Durangaldean ere ehunka izan ziren kalera atera zirenak. Emozioz betetako irudiak utzi zituen Gure Esku Dagok deitutako giza kateak, orrialde honetako argazkiek erakusten duten lez. Mobilizazio arrakastatsua izanik, erabakitzeko eskubidearen gaia eztabaida politikora eramane du berriro.

Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotzea zen antolatzaileen helburua, eta eskualdean, Mallabia, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Durango, Iurreta eta Zornotzatik pasatu zen katea. 12:00etan zen hitzordua, baina

mobilizazioa prestatzeko asmoz, ordubete lehenagotik batzen hasi ziren herritarrek errepide bazterretan. Aipagarria da katea pasatu

Estatutu berri baterako lanketan dabilta, eta erabakitzeko eskubidea txertatzea eskatu zuten

zen herriez aparte, gainerako herritako biztanle ugari ere mugitu zirela beste herri batzuetara, euren ekarpena eginez. Oinez, bizikletan eta autobusez egin zituzten espedizioak, goizean irtenda. Katean jai

giroa izan zen nagusi: trikitilariak hara eta hona ibili ziren; Abadiñon kalejira joan ziren txistulariekin; Berrizen kontzertuak eskaini zituzten; Iurretan oilasko pintxoak banatu zituzten; Durango ekitaldi kulturala egin zuten Plateruean... Nabarmentzekoa da, bestealde, boluntario askoren lanagaz atera zela aurrera mobilizazioa.

175.000 lagun zenbaketan

Gure Esku Dagoren arabera, 175.000 lagun batu ziren giza katean. Legebiltzarrean estatutu berri baterako lanketan dabilta, eta erabakitzeko eskubidea txertatzea eskatu zuten bozeramaileek.



Iurretan Joseba Sarrionandiaren senideek parte hartu zuten katean.



Atxondokoak, esaterako, Iurretara mugitu ziren.



Elorriokoei Berrizen egotea tokatu zitzaion.



Zaldibarren aldapan behera egin zuten katea, batzuetan olatu bihurtzen zena.



Joan zen barikuan izan zen aurkezpena

Igerilekuak zabalik, "iragarpena beteko ez den" esperoan

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

"Orain arte eguraldiak ez digu lagundu, baina iragarpenak ez betetzea espero dugu", esan zuen Pilar Rios alkateordeak igerilekuak zabaltzeko egindako prentsaurrekoan. Zenbait obra egin dituzte instalazioak hobetzeko, eta udan ekintzak garatuko dituzte; uztailearen 2an, esaterako, umeentzako urpeko arkeologia, Museoak, Bibliotekak eta Durango Kiro-lak-ek antolatuta.

Tabirako Sorginola gaztetxeok prest dute Fundifest jaialdiko egitaraua

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Lau eguneko egitaraua antolatuta dute Tabiran dagoen Sorginola gaztetxeok kideek Fundifest jaialdiaren hirugarren edizioarako. Gainera, Tabirako San Pedro jaiekin bat egingo dute.

Ekainaren 27an jaurtiko dute txupina, eta, ostean, afari arabiarra eskainiko dute. Barikuan, hilak 29, *Berbaz* aldizkaria aurkeztuko dute, eta ostean, Bartzelonako La Tecla gaztetxeagaz senidetze ekitaldia egingo dute. Gauez, musika-jar-tzaileen festa egongo da.

Zapatuan Tabirako marmitako txapelketara joango dira, eta arratsaldea Broken Brothers Brass Bandek girotuko du. Gauean Storm durangarrak eta Periferia Norte valentziarrak arituko dira oholtza gainean.



Aguraingo '75 ordu euskaraz' ekimenaren bultzatzaileetarikoa bat da Asier Lafuente.

"Euskaraldia oso ondo moldatzen da herri bakoitzaren egoera soziolinguistikora"

Aguraingo '75 ordu euskaraz' ekimena izango du berbagai Asier Lafuente ekainaren 19an, Berbagunean, 19:00etan

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Durango Euskaraldiaren aurkezpenean Asier Lafuente Aguraingo esperientziaren berri emango du. Hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen egitasmoa hainbat herritan abian jarri dute. Gaur aurkezpenak egingo dituzte Zaldibarren eta Zorrotzan, eta Elorrioren 22an.

Nola sortu zen '75 ordu euskaraz'?

Urte bi ziren '15 ordu euskaraz' jaia antolatzen genuela, baina horren mugak gaindituta zeudela ikusi genuen, ez zuela ekarpenik egiten. 2016ko otsaila zen, eta, orduan, Lutxo Egiaren esperientzia eta Donostiako Egia auzoan sortutako ekimen kolektiboa genituen erreferentzia moduan. Horiek oinarri hartuta sortu genuen '75 ordu euskaraz': astean lau egunean, jairik barik eta ezer prestatu barik, eguneroko harremanetan erderara

ez jotzea lortu gura genuen.

Euskararen erabilera indartzea zen ekimenaren helburua?

Bai. Baita portaera linguistikoan eragitea ere. Euskaldunei erderara horren erraz ez jotzea proposatu genien eta, erdaldunei euskararen alde egotetik portaera berri bat

"Lau egunean eguneroko harremanetan erderara ez pasatzea lortu gura genuen"

hartzera igarotzea: euskaraz berbaz datorrionari ulertzen saiatzea. Jarrera horregaz mikroelkarrizketa elebidunak sor daitezke, eta euskaraz aritzeko espazio berriak. Hori ere bazen helburua. Orduan, mezu ausartegia iruditu zitzaigun, eta

zalantza handiak genituen.

Aurrelan handia egin zenuten.

Bai. Azaroaren 8tik 11ra arteko aktibazio ariketa horretarako, aurretik herria prestatu genuen —batez ere, erdaldunei edo euskara gutxi erabiltzen zutenei begira—. Ikastaroak antolatu ziren, zazpi hizkuntzatan gomendio-gida bat atera genuen... Sei hilabetean hizkuntzen pedagogia sozial bat egin genuen portaera berri horiek sustatzeko, inertziatzko portaera linguistikoak alboratuz.

Nolakoak izan dira emaitzak?

Ez dugu daturik erabilera igo egin dela esateko. Baina 284 lagun konpromisoa lortu genuen. Ostean, izandako portaeraz eta lortutako harreman berriez galdetu genien, ea nola ikusi zituzten erdaldunak, eta balorazioa oso ona izan zen. Sei hileotan sortutako intentzio soziala ikusita, sentsazio orokorra zen babestuago gaudela euskarari

eusteko portaera hori izateko.

Aguraingo esperientzia hau edozein herritan aplikatu daiteke?

Aktibazio ariketa mota hauek, ariketa moduan, edozein lekutan aplikatu daitezke, oinarriko datu soziolinguistiko batzuei begiratuz. Eta, ezagutza datuak horren onak ez badira ere, halako jarrera eta portaera berriak sustatzea posible da. Baina modu asko daude horretarako. Euskaraldia oso ondo moldatzen da herri bakoitzaren egoera soziolinguistikora. Ikustea baino ez dago zenbat herririk eman duten izena, izaera oso desberdinekoak. Horra, adibidez, Zarautz edo Tuteran. **Instituzioen laguntza beharrezkoa da?** Aurrera begira, funtsezkoa da portaera linguistikoetan eragiteko. Baina lidergo herritarrek eraman behar dutela jakinda. Instituzioen papera babes soziala eta babes ekonomikoa ematea izan behar da.

XII. KALEZ KALE
Turreta

Ekainak 14
18:00 Cia Ganso . Babo Royal . Askondo (Bizkaia)
19:00 Cia Aimar . Etxea . Askondo (Bizkaia)

Ekainak 15
18:00 Trotamundos Circo . Historias de un Baúl . Dantzari Plaza (Bizkaia)
19:00 Mysterieuses Coiffures . Askondo (Iparraldea)
20:30 Trapu Zaharra . A cal y Canto . Dantzari Plaza (Gipuzkoa)

Ekainak 16
19:00 Bapatean Zirkoa . Baserriko Porrusalda . Askondo (Araba)
20:00 Amico . On the Beach . Askondo (Nafarroa)

Ekainak 17
13:30 Imanol Ituiño Magoa . Magia Parrastan . Dantzari Plaza (Bizkaia)

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

LIBURU AURKEZPENA
"Vasco, ¿cómo se llama tu país?"

Iñaki Azkoaga eta Jon Ander Ramos
Ekainak 20, eguaztena
19:00etan
Sarrera doan



IURRETA

Tellitu-n udaberrian hasiko gara eraikitzen

*3 logelatako
6 etxebizitza*

*2 logelatako
11 etxebizitza*

*Garajea eta
trastelekua barne*



DURANGO LANDAKO GUNEA

*Durangoko herrigunean,
bista ederrekin*

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com

Durango institutuaren 50 urteak ospatzeko, akorduz betetako aldizkaria argitaratu dute

"Gure balioetako bat ikastetxe zabala izatea da, eta aldizkarian parte hartu duten denak bat datoz horregaz", azaldu du Jon Gorriño institutuko zuzendariak; bihar ospatuko dute urtemuga, bazkariagaz eta ikasle ohien ikuskizunagaz

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Durungaldeko ikasle eta irakasle ohi askoren akordua eta argazki zaharrak topatu daitezke Fray Juan Zumarraga institutuaren 50. urtemuga ospatzeko argitaratu duten *Heu be zantzoka* aldizkari berezian. Esaterako, Eneko Atxa sukaldaria, Miren Amuriza bertsolaria eta Miguel Zugaza Arte Ederretako Museoaren zuzendaria ageri dira

Irazola: "Askatasun eta errespetu giroan ikasten den leku bat dela esan dute askok"

euren gogoetak kontatzen. Aldizkariaren edizioan lanean ibilitako batzuk Jon Gorriño zuzendaria eta Xabier Boveda, Patxi Azkarate eta Miren Irazola irakasleak dira.

"Gure balioetako bat ikastetxe zabala izatea da, eta aldizkarian parte hartu duten denak bat datoz horregaz", azaldu du Gorriño. Uneotan 850-900 ikasle dituzte, tartean premia bereziak dituzten 50 bat. Horrek ere egiten du berezi institutua. Grekoa zein latina ematen dituen Irazolaren ustez, ikasgai aniztasuna da ikastetxearen



Institutuko patioan, ezkerretik hasita, Boveda, Azkarate, Irazola eta Gorriño.

ezaugarrietako bat, eta askatasuna ere bai. "Askatasun eta errespetu giroan ikasten den leku bat dela esan dute askok, bakoitzak bere nortasuna aurrera eramateko leku bat izan dela". Bovedak azpimarratu du "izaera sortzailekoa eta berritzailekoa" izan dela institutua.

Hari horretatik, Patxi Azkaratek erreferentzia kulturala aipatu

du. "Aste kulturalak beti eduki du pisua. Adibidez, 1998koa oso indar-

Bovedak azpimarratu du "izaera sortzailekoa eta berritzailekoa" izan dela institutua

tsua izan zen: Zazpi Eskale, bertsolariak, antzezlanak...", gogoratu du.

Aldizkaria Urriken egongo da salgai, eta biharko urtemuga jaiaren ere banatuko dute. Plateruenean batu, institutuan bazkaldu eta ikasleen ikuskizun kulturala eskainiko dute, Nerea Aizpurua musikariak koordinatuta. Jai "herrira zabalik" dagoela adierazi du Bovedak.

Udalak 12.000 euro gorde ditu, aurten, hezkuntza arloko diru-laguntzetarako

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Ekainaren 22ra bitartean, Herritarren Arretarako Zerbitzuan diru-laguntza eskatu daiteke seme-alaben hezkuntza arloko gastuak ordaintzeko.

Ekainaren 22ra bitartean eskatu daiteke diru-laguntza Herritarren Arretarako Zerbitzuan

Udalak 12.000 euro gorde ditu 2017-2018 ikasturteko ikasleen laguntzetarako. Tarte hauek daude zehaztuta, ikasleko: Haurreskola (100 euro), Haur Hezkuntza (20 euro), LHko 1. eta 4. maila artekoak (30 euro), LHko 5. eta 6. mailak (45 euro) eta DBHko 1. eta 4. maila artekoak (75 euro). Seme-alaba ikasleak dituzten iurretarrak dira onuradun, eta ikasle horiek aipatutako tartetan egon beharko dute, ikastetxe publiko edo pribatuan. Iaz 300 eskari onartu zituzten.



Garaiko Sagardo Egunak 120 lagun inguru batu ditu jai giroan

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Trumoitte kultur elkarteak antolatuta, sagardoaren bueltako jai ospatu zuten zapatuan Ga-

Herritar batzuek batutako sagarrekin egindako sagardoa dastatu ahal izan zuten

rain. Herritar batzuek batutako sagarrekin egindako sagardoa dastatu ahal izan zuten, besteak beste. Gainera, DJ Bullegaz jai giroa sortu zen. Guztira, 120 bat lagunek parte hartu zuten jaialdian.

Durango gobernu aldaketa gauzatzea helburu duen talde eragilea aurkeztu du EH Bilduk

2019an egingo diren udal hauteskunderi begira, lan talde berria osatu du koalizioak



Zazpi zinegotziek eta EH Bilduko asanbladak proposaturiko beste zazpi kidek osatzen dute talde eragilea.

DURANGO • A.M.

Iaz abiatutako ERA prozesuaren ondorioa da talde eragile hau osatzea. Egungo zazpi zinegotzietz gainera,

EH Bilduko biltzarrak proposatutako beste zazpi kidek osatzen dute lan taldea: Susana Apariciok, Jabí Arbeok, Jasone Agirrek, Iker

Villanuevak, Maialen Bildosolak, Martin Arrasatek eta Marian Bilbatuak. Koalizioaren ustetan, egituraketa berri hau eragin korragoa

izango da durangarren beharriari erantzuteko eta datozen udal hauteskundeetan aldaketa gauzatu ahal izateko. "Ilusioz egon gara oposizioan beharrez, eta ilusioz ekingo diogu inoiz baino hurbilago dugun aldaketa gauzatzeari", adie-

Durangarren beharri erantzuteko eta udal hauteskundearen erronkari eusteko sortu dute taldea

razi zuen Eider Uribe zinegotziak eguazteneko aurkezpenean. Azken hiru urteetan udalean zein kalean eginiko lana goraiatu du baita ere EH Bilduk, eta aurrerantzean ere "dinamika parte-hartzaileak eta auzo bilerak egiten eta jendearen kezka eta ideiak jasotzen" jarraituko dutela adierazi dute.

Euriteek eragindako kalteen ondorioz, igerilekua ez dute gaur zabalduko

Bainu denboraldiari datorren astean hasiera ematea aurreikusten dutela jakinarazi du David Cobos alkateak

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ekainaren 3ko euriteek kalte handiak eragin zituzten Atxondoko igerilekuan, eta azken astean erlojuaren aurka lanean ibili dira bertan. Atxondoko Udalaren asmoa zen gaur ematea hasiera

kaltetutako makinak aldatu egin ditugu eta lanak ondo doaz. Hala ere, igerilekua gaur zabaltzea ezinezkoa izan da", adierazi du David Cobos alkateak.

Behin dena txukundutakoan, uraren analitika egindakoan eta emaitzak jasotakoan zabalduko dutela igerilekua jakitera eman dute. Cobos alkatearen esanetan, datorren asterako aurreikusten dute igerilekua zabalduko eta bainu denboraldiari hasiera ematea. "Igerilekuko langileak lanean dabilta dagoeneko. Garbiketa lanetan laguntzen dabilta eta dena txukun jartzen dugunean zabalduko dugu igerilekua", amaitu du Cobosek.

Uraren analitika egindakoan eta emaitzak jasotakoan zabalduko dute igerilekua

bainu denboraldiari, baina euriteek eragindako kalteen ondorioz ezinezkoa egingo zaie. "Urak



Atxondoko igerilekua.

Artisauek izena eman beharko dute azokan postua jartzeko

Ferixa Nausikoetako Artisan Azokan egon gura dutenek ekainaren 22a baino lehen egin beharko dute eskaria

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ferixa Nausikoetako Artisan Azokan postua jartzeko gura duten artisauek aurrez izena eman beharko dutela jakitera eman du Elorrioko Udalak. Izen-ematea ekainaren 22a baino lehen egin beharko da udaletxean dagoen Herritarren Arretarako Zerbitzuan edo sac@elorrio.eus helbidera idatzita.

Bestalde, postua jartzeko aukeratuaren zerrenda uztailean zehar argitaratuko dutela jakinarazi dute udaleko kideek.



Artisan Azokako argazkia.



Eneko Baseta eta Miriam Caro, Berriztuko antolatzaileak.

“Berriztu kontsumo frenetikoari aurre egiteko ekintza polit bat izan zitekeela pentsatu genuen”

Domekan, 11:00etatik 15:00etara bitartean, Berriztu bigarren eskuko azoka egingo dute

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berriztu bigarren eskuko azokaren seigarren edizioa egingo dute domekan. 11:00etatik 15:00etara bitartean egingo dute, udaletxeko parkean. ANBOTOK Eneko Baseta (Berriz, 1981) eta Miriam Caro (Berriz, 1986) antolatzaileekin hitz egin du.

Nola bururatu zitzaizuen bigarren eskuko azoka hau antolatzea?

Eneko Baseta: Europa iparraldetik eta Australiatik bidaiatzen ibili ginen eta horrelako azoketan asetururo jende asko ibiltzen zela ikusi genuen. Orduan, hemen horrelako ekimen bat egitea oso interesgarria iruditu zitzaigun. Gainera, birziklapenaren inguruko beste alde hori ere ikusi genuen, gure bizitzetzan zaintzen ahalegintzen garen kutsu hori.

Miriam Caro: Alternatiba moduan ikusi genuen. Berriztu kontsumo frenetikoari aurre egiteko ekintza polit bat izan zitekeela pentsatu genuen.

Murritztea, berrerabiltzea eta birziklatzea bultzatu gura dituzue. Zergatik dira horiek garrantzitsuak?

M.C.: Guretzat garrantzitsua da benetan beharrezkoak ez diren erosketak saihestea, erabiltzen ez ditugun gauzei beste irtenbide bat ematea eta erosketaren bat egin behar badugu, bidezko merkataritza, ekonomia alternatiboa eta solidarioa, lankidetzaz-

kontsumoa eta halako formulak baliatzea. Beraz, Berrizturen bitartez balio horiek plazaratzen ditugu.

“**Sistema oso kapitalista batean bizi gara, eta ez dugu kuestionatzen zenbat erosten dugun**”

E.B.: Sistema oso kapitalista batean bizi gara, eta ez dugu kuestionatzen zenbat eta zelan erosten dugun. Eta hori aztertzea beharrezko ikusten dugu.

Azokaz gain, beste hainbat ekintza ere antolatu dituzue.

E.B.: Musikagaz eta muralagaz kutsu berezi bat eman gura izaten diogu herritar guztientzat zabalik dagoen azokari. Aurten, Inunek kontzertua eskainiko du eta Janire Ordunak murala egingo du. Musikagaz eta muralagaz bere espazioa ematen diogu arteari.



Euria eginez gero, udaletxeko lorategian beharrezko probak egingo dute.

“Abadiñon batxilergoko ikasketak eskaintzea beharrezkoa den aztertu beharko litzateke”

'Batxilergoa Traña-Matienan?' deituriko hitzaldi informatiboan parte hartu zuten Iñaki Osorok eta Iratxe Gorrotxategik



Gorrotxategi, EH Bilduko Mikel Urrutia eta Osoro Abadiñoeko hitzaldian

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Orain hamahiru urte Jubilatuen Etxea izateko baliatu zen eraikinaren etorkizuna zeresana ematen ari da azken asteetan. 2005az geroztik, Abadiñoeko Udalak kudeatzen du Jubilatuen Etxeko eraikina,

eta ez Hezkuntza sailak. Apirilko osoko bilkuran, Jubilatuen Etxea berreskuratzea erabaki zuen udal gobernuak. "Eraikinaren etorkizunari buruz udalak erabakitzea gura dugu, eta ez beste erakunde batek", adierazi zuen Jose Luis Navarro

alkateak erabakia justifikatzeko. EH Bildu abstenitu egin zen. Hain zuzen ere, gaiak planteatzen dituen dudedi buruz berba egiteko, berbaldia antolatu du asteon EH Bilduk. Iñaki Osoro Abadiñoeko in-sititutuko zuzendari ohiak (egun,

irakaslea da) eta Iratxe Gorrotxategi eskola kontseiluko kideak parte hartu zuten, besteak beste. Bien ustez, aukerak ez du funtsik, oraindik behintzat. "Oinarria falta zaio ideari. Oraindik ere lan asko dago egiteko", azaldu du Osorok. Bestalde, hainbat abadiñarrek espazio publikoaren etorkizunagaz gertatuko denari buruzko kezka agertu dute. "Zerbitzu hau beharrezkoa den aztertu beharko litzateke lehenbizi", esan du Gorrotxategik.

Aldagai asko kontuan hartzeko

"Baliabide nahikoa dagoen —humanoa, tekniko eta ekonomiko— begiratu beharko litzateke", azpimarratu du Osorok. Izan ere, zerbitzuen duplikazio bat eman daitekeela iradoki dute biek. Hain zuzen ere, batxiler mailako ikasketak Durangon eta Iurretan ere eskaintzen dituzte. "Matiena ez beste auzoetako abadiñarrek autobusa hartu behar lukete berdin-berdin; hortaz, eskaintzak berezia izan beharko luke", dio Gorrotxategik. "Agian eskaintza Durangokotik eta Iurretakotik ezberdintzea izango litzateke aukera", planteatu du zuzendari ohiak. Guztiagaz, kalitatezko zerbitzu baten eskaintza bermatu beharko litzateke bien iritzian.



30 bat lagun bildu ziren.

36 proposamen jaso dituzte aurrekontu parte-hartzaileen lehenbiziko saioan

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

60 urtetik gorako zaldibartarrek 30.000 eurogaz zer egin erabakiko dute, eta aurrekontu parte-hartzaileen lehenbiziko saioan 30 bat lagun bildu ziren. Saioan 36 proposamen egin zituzten. Besteak beste, Elizondo eta Bilbo etorbideetan kaleak konpontzea, zebra-bideak jartzea eta Olazarren komun publikoa ezartzea eskatu dute saioan bildutakoek. "Hainbat proposamen ez dira gure esku-duntzakoak; hala ere, dagokion erakundeari helaraziko dizkiogu", adierazi du Eneritz Azpitar-te alkateak. Hurrengo saioan bozkatuko dituzte proposamen horiek, uztailaren 3an.

Mañondo ingurua berrantolatzeke prozesuko ondorioak lantzen dabilta

OTXANDIO • J.D.

Mañondo inguruko espazioa berrantolatzeke asmoa du udalak eta hori zelan egin erabakitzekeko prozesu parte-hartzaile bat garatu du herritarrekin. Batzar horiek amaitu dira eta jasotako

Gaztetxoekin batu ziren lehenengo, eta guraso, irakasle zein bestelako eragileekin ondoren

iritziak lantzen ari dira orain. Horiekin proposamen bat landuko dute.

Adin eta arlo askotako herritarrekin batu dira. Lehenengo batzarreko protagonistak umeak eta gaztetxoak izan ziren. Ondoren, guraso, eskolako irakasle eta bestelako eragileekin batzartu ziren.

Berrantolatzeke eskola pareko espazioari —goiko zein beheko jolasguneari— zein igerilekuko aparkalekutik frontoiraino doan tarteari eragiten die.

Nafarroa Zentroa eraberritu egingo dute funtzionalagoa eta efizienteagoa bihurtzeko

Bigarren faseko lanek 900 metro karraturi eragiten diete, solairu bitan banatuta; azpiegiturak berriztuta, energia kontsumoan %65 inguru aurreztuko dela kalkulatu dute

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Nafarroa Zentroa eraberritzeko bigarren faseari ekin zioten astelehenan. Solairu bitan banatutako 900 metro karraturi —450 bakoitzean— eragiten diete lanek, eta 576.000 euroko aurrekontua dute.

Bigarren solairuko espazioa berrantolatu egingo dute eta, orain ez bezala, erdiko pasillo batetik zuzenean sartu ahalko da gela guztietara. Lehenengo solairuan ez dago horrelako lanen beharrik.

Azpiegiturak solairu bietan berriztuko dituzte: aire egokitua, berogailu sistema, argindarra... Energia kontsumoa %60-65 jaistea itxaroten dute. Lehenengo faseko eraikin zatian ere aldaketa berdinak egin zituzten azpiegiturretan.



Udal ordezkariak Nafarroa Zentrorra egindako bisitan.

Udaleko kirol zerbitzuei buruzko iritzia eman dezakete herritarrek

ZORNOTZA • J.D.

Ekaina amaitu arte udaleko kirol azpiegituren eta zerbitzuen gaineko iritzia eman ahalko dute herritarrek. Udalak prestatu duen galdetegia Larrea kiroldegaren sarreran eta Ametx era-

Zelaieta Zentroan eta Ametx erakundearen webgunean aurkitu daiteke galdetegia

kundearen webgunean aurkitu daiteke. Azpiegituren egoerei eta eurretan lan egiten duten langileei buruzkoak dira galdetarak. Jasotako iritzia zerbitzua hobetzeko erabiliko dituztela diote udal arduradunek.



ARGAZKIA: JUSTO ALBERDI

Hareek denporak!

Durangaldeko aitzindariak bizikletan 7 hiriburuak lotzen

Orain asteburu bi, Euskal Herriko zazpi hiriburuak bizikletan jarraian lotu zituzten Oskar Markinezek, Zigor Zuburrutik eta Gorka Marzanek. Abadiño-tik irten ziren eta toki berean amaitu zuten, 27 ordu geroago. Lorpen horrek badu beste aurrekari bat Durangaldean. 1985-86 inguruan, Alejandro Fernandez, Bixen Derteano, Juan Angel Rekalde eta Justo Alberdi izan zuten protagonista. Asier Alberdi

kopilotu aritu zen eta Kristina Mardarasek furgoneta batean jarraitu zieten, laguntza moduan. 32 orduan bizikletan ibili ostean, irtendako toki berean helmugaratu ziren, Iurretan.

Handik urte batzuetara, 1991. urtean, Justo Alberdik berriro bete zuen zazpi hiriburu-tako erronka. Jesus Mari Odriozolagaz batera aritu zen, eta orduan 28 ordu egin zituzten bizikletan.

Sei hankako mahaia

Daniel Maeztu Perez
EH Bildu



Tankeak Alde Zaharreen

06:30ak dira, Alde Zaharreko kale batean bizi zara eta gaur berriro ere zarata madarikatu horrek esnatu zaitu. Zure etxe azpian tanke bat dagoela ematen du, baina ez, Durangoko Udalak daukan kale garbiketarako enpresaren "barredora" bat da. Zepiloak lurraren kontra jotzerakoan egiten duen zarata, makinaren motorrarena, pixkanaka zure burmuinean sartu dira. *Burr, burr, burr* horiek ezin dituzu atera burutik. Tira, pozik egon beharko zinateke, atzo gauerdirako lo baitzeunden, pintxo-pote eguna izan arren.

Ostirala da, beraz, eta Anbotoren twitter kanalera jo duzu azken albisteak irakurtzeko. Eta zer topatu duzu? Bai! Udaleko azken osoko bilkuran kale garbiketa eta hiri hondakinen bilketaren kontratua onartu dute. Segituan, galdera bat datorkizu burura: herritarrok deskantsurako daukagun beharra eta esku-bidea, eta kaleak garbitzeko zerbitzu publikoa, biak uztartzeko kapazak izan dira udal ordezkariak?

Sentitzen dut zutabe honen bitartez albiste txarrak ematea Alde Zaharreko auzokide horri, baina aukera paregabea utzi dute pasatzen Durangoko PNVk, PSEk eta PPK arazo hori konpondu ahal izateko. Onartutako kontratu horretan ez da ordutegirik ezartzen, soinu kutsadura (zarata) gutxitzeko neurriak hartzea %1eko garrantzia izango du, alegia, hutsaren hurrengoa. Beraz, lasai asko kontratua irabazi dezake zarata ezabatzeko ezer ere egingo ez duen enpresa batek. Are gehiago, 06:30ean barik 05:00etan pasatu ahal dira tankeak zure etxe azpitik hemendik gutxira.

Durangaldea asteen

Auzolanean arituta, anfibioentzako putzu bat egingo dute zapatuan Mallabian

Mallabia • Lurguia Fundazioagaz elkarlanean, anfibioentzako putzu bat egingo dute auzolanean. Zapatuan 11:00etan plazan batzeko deialdia egin dute eta handik Palazioa izeneko jauregi ingurura joango dira, han egingo dutelako putzua. Anfibioak ugaltzeko gune bat sortzea da helburua. Iaz anfibioen inguruko hitzaldiak izan ziren Mallabian eta orduan irten zen ideia.

Praka laburrak eta sandaliak jantzita, udaren etorrera ospatu dute

Elorrio • Praka laburrak eta sandaliak jantzita eta umorea lagun dutela, uda heldu dela ospatu dute Elorrian, nahiz eta oraindik neguko eguraldia eduki. Lagun talde batek egin du ospakizun bitxia, ekainaren 9an, eta *Maiatzaren 40a* izena ipini diote. Laugarren urtea da ekintza honek hasi zirenetik.

Ekimeneko kideetako bat den Fernan Garciak ANBOTOrri adierazi dionez, aurten zerbait berezia egin gura zuten. Horregatik, *Kaskajua* lez bataiatu duten panpina Alde Zaharreko



harresian jartzea erabaki dute. Barikuaz geroztik, *Kaskajua* harresian jarrita dago eta Elorriko Ferixa Nausikoak amaitzen direnean kenduko dutela eman dute abisu.

Iritzia

GIZA KATEAREN HARIRA...

Ekainaren 10ean, beste behin, gure etorkizuna guk geuk erabaki nahi dugula aldarrikatu genuen milaka euskal herritarrek. Erabakitze eskubidearen alde sekula egin den mobilizaziorik handiena izan zen Donostia, Bilbo eta Gasteizen arteko giza katea.

Erronka itzela antolatzaileontzat, logistikoki zein kuantitatiboki. 175.000 herritarrek hartu zituzten errepideak, 2014ko Durango eta Iruñearen arteko giza kateko zifrak hautsiz.

Urteak daramatzagu Euskal Herriaren etorkizun politikoa euskal herritarrok erabaki nahi dugula aldarrikatzen. Iaz, Durangalde osoan antolatutako herri galdeketa, nahi hori gauzatzea posible dela erakutsi genuen herritarrok, eta aurten, joan den asteko giza katean, beste pauso bat eman dugu herri gisa dagozkigun eskubideak exijitzeko.

Gutun honen bitartez Durangaldeko herritarrek eskertu nahi genituzke. Bai giza katean parte hartzeagatik eta baita urte hauetan guztietan erakutsitako adore eta ilusioagatik ere. Horixe baita burujabetza lortzeko giltza: ezberdinen arteko adostasuna, elkarlana eta determinazioa. Eskerrak baita, eskualdeko komunikabideei, ANBOTO astekariari bereziki, herritarrei boza emateagatik. Eta, azkenik, eskerrik beroenak mobilizazio erraldoiaren antolaketa lanetan ibili ziren boluntarioei.

Jauzi handi bat egin genuen ekainaren 10ean. Erakutsi genuen gero eta gehiago garelako nazio burujabe bat nahi dugun herritar ahaldunduak. Ez dugu atzera egingo. Lanean jarraituko dugu Euskal Herriaren borondate demokratikoa gauzatu dadin. Jende zorionsuz osatutako herri libre bat lortu arte. Erabakiko dugu, Gure esku dago! Mila esker danori.

Andoni Urzelai, Durangaldeko Gure Esku Dagoren izenean

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOrren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

BODEGUILLA



TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



Zorrien eta bartzen deuseztapen zentro espezializatua

Teknologia berriztatzailea, oso eraginkorra, %100 naturala, produktu toxiko barik.

AURRETIKO ZITA: www.pipirikez.es

info@pipirikez.es - Tel.: 688 632 933
Aguirre Lehendakari 4, DURANGO

35'95€-tik
AURRERA

Tratamendu eraginkorra zorri eta bartzak 60 minutuan kenduta



Aiko

DANTZA
DDURANGO :: EKAINAK 16

Aiko taldeagaz dantzari eta dantzazaleen eguna ospatzen

Aikok gidatzen dituen dantza taldeek agur esango diote ikasturteari bihar Plateruenean egingo

duten jaialdian. Bazkalostean, 17:00etan hasiko da erromeria, 13:00etan elkartuko dira egunari



Banarte taldearen ikastaroko emaitza, antzerki emanaldietan

ANTZERKIA | Banarte antzerki taldeak ikasturte honetarako antolatutako ikastaroa amaitu da, eta bertan prestatutako antzezlanak aurkeztuko dute Trañamatenan eta Iurretan, *Claro y*

Clara no se aclaran izenekoa. Bihar, zapatua, Abadiñoako Errota kultur etxean izango da lehen emanaldia, 20:00etan. Bigarrena datorren barikuan izango da, hilak 22, 19:30ean, Iurretako Ibarretxe

kultur etxean. Jose Cadena da obraren autorea, eta Nerea Ariznabarretak zuzenduko du.

Alberto Iglesias, Lorea Larrea-tegi, Maite Egidazu, Karmen Urizar, Liliana Josefa Perez, Yeya Hernández eta Fernando Borge izango dira antzezleak.

Ikastaroan parte hartutako gizon eta emakume gehienentzat lehen harremana izan da antzerkiaren edo interpretazioaren munduagaz.

Ekainaren 15ean

MALLABIA jaiak
Gerea auzoko jaiak.
Txopo jasotzea,
19:00etan.

DURANGO lehiaketa
Pub Quiz,
21:30ean, Plateruenean.

ZALDIBAR musika
Lomoken Hoboken eta
The Vartools taldeen
kontzertua Gari Rock VI
jaialdian,
22:30ean, gaztetxean.

DURANGO musika
Nevadah 'We're Coming
To You' diskoaren
aurkezpena. Horren
ostean, DJ Nevadah,
22:00etan, New Stepen.

Ekainaren 16an

ZALDIBAR musika
Gari Rock VI jaialdia
dela-eta, egun osoko
egitaraua. Bazkaria
gaztetxean,
14:00etan, **Talka bertsio**
talde akustikoaren
kontzertua,
19:30ean, Castet
elkartean, **Kokein**
eta **Cobra** taldeen
kontzertua,
22:30ean, gaztetxean.

ABADIÑO jaiak
Iturritxoko jaiak.
Umeentzako ginkana,
12:00etan, **Abadiño**
musikarien kontzertua,
13:00etan, **Maleta Siku**,
14:00etan, **mus**
txapelketa,
15:00etan, **ugasio**
txapelketa,
18:00etan, **parrillada**,
19:30ean, **DJ Tijuana eta**
karaokea,
19:30-22:30 bitartean.



ekiteko, Andra Marian eskainiko duten saioa-gaz. Gero, bazkaltzera joan aurretik, kalejiran eta poteoan ibiliko dira. "Ikasturtea amaitzeko modurik onena elkarre-gaz dantzan egitea da, dudarik barik", esan dute.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Peterren memorialeko finalak jokatu dituzte Ezkurdin

PILOTA | Peterren omenezko txapelketako finalak jokatu dituzte etzi, 17:00etan. Nagusien bigarren mailan, Inunziagak (Iurreta) eta Garciak (Potugalete) Gutierrezen (Durango) eta Arkotxaren (Lea) aurka jokatu dute. Lehen mailan, Bereikua eta Zezeaga iurretarek Arabiourrutia abadiñarragaz eta Ibarloza markinarragaz neurtu dituzte indarrak. Umeen eta palista emakumeen finalak ere egongo dira.



MALLABIA jaiak
Gerea auzoko jaiak, meza, eta ostean zurrutada eta luntxa, 12:00etan, **umeen txokolatada**, 16:00etan, **briska txapelketa, eta ostean txokolatada**, 17:00etan.

DURANGO jaiak
Intxaurre Eguna 2018. Pintxo dastaketa, 12:00etan, **bertsoak balkoitik Josune Aramendi, Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Igor Elortzagaz**, 16:00etan, **Gora Etorri eta DJ Jkinen kontzertua**, 23:30ean, Intxaurre elkartean.

ABADIÑO antzerkia
'Claro y Clara no se aclaran' antzezlan, 20:00etan, Errotan.

DURANGO behaketa
Behaketa astronomikoa Izarra astronomi elkarteak antolatuta, 22:30ean, Zuhatzola parkean.

Ekainaren 17an

MALLABIA jaiak
Gerea auzoko jaiak. Gazte Alai dantza taldearen saioa, **Garikoitz Sarriugarte eta Felipe Zelaieta bertsolariak**, Jon Gisasola, Goikoetxe, eta Uxue aizkoragaz, trontzan eta harrijasotzen, 11:00etan, **asto probak**, 18:00etan.

Ekainaren 20an

DURANGO hitzaldia
'Posible da gorrotorik gabeko gizarte bat?', 18:30ean, elkartegia.

DURANGO literatura
'Vasco, ¿Cómo se llama tu país?' liburuaren aurkezpena Iñaki Azkoagagaz eta Jon Ander Ramosegaz, 20:00etan, Hitz liburu dendan.

Ekainaren 21ean

DURANGO literatura
'Non Dago Txirlo?' liburuaren aurkezpena, 19:00etan, Arteka liburu dendan.

DURANGO literatura
Erein taldearen kontzertua, 20:00etan, Intxaurren.

Ekainaren 22an

ELORRIO ikuskizuna
'Crotch' ikuskizuna, 20:30ean, Arriolan.

IURRETA antzerkia
'Claro y Clara no se aclaran' antzezlan, 19:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

DURANGO musika
Bart... Sax (70eko hamarkadako swing, funk, eta rocka) taldearen kontzertua, 19:30ean, **Jam session saio irekia**, 22:00etan Sorginolan.

Ekainaren 23an

ELORRIO azoka
Eixu artisau, sortzaile eta ekoizle elkarteak antolatuta, **azoka**, 10:30-14:30 bitartean, plazan.

DURANGO musika
Disco festa DJ Txurrugaz Domekaero programaren baitan, 20:00etan, Plateruenean.

Ekainaren 24an

DURANGO musika
'Kontu Kantari 2 mendian ibiltari' antzerki kontzertua, 12:30ean, Plateruenean.



Zine- ma

:: Durango ZUGAZA

• **No Dormirás**
barikua 15: 19:30
zapata 16: 18:00/22:30
domika 17: 21:15
astelehena 18: 21:00
martitena 19: 20:00
eguaztena 20: 20:00

• **¡Qué Guapa Soy!**
barikua 15: 19:30/22:00
zapata 16: 20:00/22:30
domika 17: 19:00/21:15
astelehena 18: 18:30/21:00
martitena 19: 20:00
eguaztena 20: 20:00

• **Los 50 son los Nuevos 30**
barikua 15: 19:30/22:00
zapata 16: 18:30/20:30
domika 17: 17:00/19:00
astelehena 18: 18:30/21:00
martitena 19: 20:00
eguaztena 20: 20:00

• **Jurassic World: El Reino Caído**
barikua 15: 22:00
zapata 16: 16:45/19:30/22:30
domika 17: 17:30/20:30
astelehena 18: 18:30

• **Colmillo Blanco**
zapata 16: 16:45
domika 17: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Normandia al Desnudo**
zapata 17: 20:00
domika 18: 16:30/20:15

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Berriro bueltan dator Nevadah lan berriagaz. 'We're coming to you' diskoan are nabariagoa da rock&roll, blues eta garage iturrietatik edan dutela; guztiak nahastu, eta koktel gordina bezain dantzagarria proposatzen diote entzuleari. Eurek dioten bezala, burua eta hankak musikaren erritmora dantzaz jartzeko moduko musika da Nevadahrena. Behar kontuengatik Jokin Alberdik taldea utzi eta Anartz Ugartek hartu du baxua orain; Liher Arteagak (gitarra), Jon Agirrek (Ahotsa), Pello Bañosek (Bateria) eta Jon Agirrebeitiak (Gitarra) osatzen dute Nevadah, Ugartegaz batera.

Zer aurkituko du entzuleak lan berri honetan?

Pello Baños: Aurrekoa aurkezpena izan zen, lehenbiziko urratsa gure bidean. Honetarako, askoz gehiago landu dugu kantuak egiteko prozesua.

Jon Agirre: Jauzi bat eman gura izan dugu, maila bat igotzea. Lehen, arratsalde batean egiten genituen kantak; orain, denbora gehiago inbertitu dugu.

Jon Agirrebeitia: Orokorrean, zuzenekoetan dugun jarrera islatu gura izan dugu. Teknikoki gu baino hobeto jotzen duten taldeak egongo dira, baina, jarrera aldetik, gutxiak dute gurea.

Zuzenean guztiok batera jotzen grabatu duzue. Zelako esperientzia izan da?

P.B.: Aspalditik buruan bueltaka genuen ideia bat zen hau, eta etorkizunean zer gertatuko den ez dakigunez, orain egitea erabaki dugu. **J.A.:** Beti genioen, 'Egunen batean horrela egitea itzela litzateke, Rolling Stonesek egin zuen bezala', eta hauxe izan da momentua.

Anartz Ugarte.: Guretzat lan extra bat izan da, estudioara sartu aurretik asko entseatu behar izan dugulako, baina merezi izan du. Dударik barik errepikatuko genuke.

J.A.: Estudioaren aukeraketa ez zen kasualitatea izan. Mecca estudioetan, Oiartzunen, jazz eta blues asko grabatzen dute, eta espezialistak dira zuzeneko grabaketetan. Zerbait ezberdina gura genuen, estiloari lo-

“Teknikoki talde asko dira gu baino hobeak; jarrera aldetik, baina, gutxiak dute gurea”

'We're Coming to You' lana aurkeztuko du gaur Nevadah boskote durangarrak; ia urtebete entsegu lokalean beharrean igaro ostean, kontzertuak eskaintzeko gogotsu datoz



tzen zaion betiko soinu horretatik pixka bat irteera gura genuen, hain zuzen ere.

P.B.: Ziur akatsen bat entzungo dela grabaketan, baina, hurbil egotekoan, dugun feelinga igartzen da abestietan. Lan oso freskoa da, gordina.

Prozesu luzea, beraz.

J.A.: Sekulako gogoa genuen diskoa kalean egoteko, egindako beharren emaitza erakusteko. Oso luzea egin zaigu prozesua.

P.B.: Txandaka egiten dugu lan, eta puzzle asko egin behar izan ditugu bostok elkartzeko.

J.A.: Sei hilabetez hau izan da gure

Rock festa, antzina zuen tronua berreskuratzeko

Zeresana eman du Nevadah taldeak gaurko antolatu duen aurkezpena New Step pubean izateak. Ohikoagoa litzatekeen leku batean egin beharrean, espazio ezberdinak berreskuratzea da gazte hauen asmoa. "Gure sokakoa ez den leku batean egin gura genuen, txipa aldatzeko. Durango hilda dago, eta hori aldatu egin gura dugu"

aldarrikatu du boskoteak. Norabide horretan jorratu dituzte diskoko hitzak ere. "We're Coming to You jarrera kontu bat da, gerra-deklarazio bat. Hemen gaude gu, eta rocka". Rock festa 22:00etan hasiko da, Kalebarriako lokalean. "Bide batez, 70eko hamarkadako pubetako rocka ere aldarrikatu gura genuen", adierazi dute.

bizimodua eta inguruan ere igarri dute hori; muturrera eraman ditugu gure harremanak (barrez). **Zer moduz moldatu zarete aldaketagaz?**

A.U.: Nik gitarra jotzen nuen lehen, beste talde batzuetan. Egun batean Jonek [Agirre] deitu zidan, proposamen bat egiteko. Lagun batek baxua utzi zidan, eta hemen nago. Disko berrirako kanten sortze prozesuan sartu nintzen; nire ukitua ematen saiatu naiz eta oso gustura geratu naiz.

J.A.: Etorri zen lehenbiziko entsegurako, abesti zaharrak ikasita zituen. Bere konpromiso maila islatzen du horrek.

P.B.: Oztopo bat izan zitekeena aldaketa positibo bat izan da.

“**Antolatzaileek ez dute arriskutzen programatzerakoan; gune alternatiboetakoek ere ez**”

Gogotsu zaudete zuzenekoetarako?

J.A.: Sekulako gogoa genuen diskoa kalean edukitzeko. Ia urtebete daramagu kontzerturik eskaini barik, gainera.

J.A.: Hankak eta burua mugiarazten dituen musika da onena. Hurbiltasuna ere bada gakoa. Guztion artean festa bat sortzea gustatzen zaigu, jarrera kontua da hori.

P.B.: Ondo jo ala transmititu aukeratu behar izanez gero, bigarrenaren aldeko hautua egiten dugu.

Rockak ez du harrobirik Durangaldean?

J.A.: Askok aldatu da kontua. Orain dela hamar urte talde asko geunden; orain, oster, oso gutxi.

P.B.: Azken hamarkadan egon den aldaketa soziokulturalaren eta erraztasun faltaren ondorioa dela uste dut. Homogeneizazio bat egon da, munduko leku askotan musika berdina entzuten da.

J.A.: Antolatzaileek ere ez dute arriskutzen programatzerakoan, ezta leku alternatiboetan ere, eta horrek ere ez du laguntzen.

Musika eguna

IURRETA

EKAINAK 21

10:30 UMEEN TANBORRADA INFANTIL
JARRAIAN KALEJIRA
A CONTINUACIÓN PASACALLES
KALEAN TXARANGA

19:00 THE PUSHHERMEN
VERSIONES DE ROCK AND ROLL
DE LOS 60 Y 70
KASKOAN / EN EL CASCO

DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK

Whatsapp bidez
Bidali 'ALTA' 688 635 041
zenbakira whatsapp
bidezko mezua bidalita

Telegram bidez
Bilatzailearen bidez
'ANBOTO' kontua
topatu eta
jarraitzen hasi

Anboto Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak

Oholtzan urte ugari daramaten Cobra eta Kokein taldeak Gari Rock jaialdian egongo dira

Jaialdiak seigarren edizioa du aurtengoa; atzo hasi zen, Mississippi Queen taldearen kontzertuagaz, eta gaur eta bihar beste bost taldek eskainiko dituzte zuzenekoak

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Sei taldek osatzen dute seigarren Gari Rock jaialdiko kartela. Atzo, Mississippi Queenek eman zion hasiera jaialdiari, eta gaur, barikua, Lomoken Hoboken eta The Vartool eibartarrek eskainiko dute kontzertua. Zapaturako, ostera, egun osoko egitaraua prestatu dute elkarteko kideek. 14:00etan bazkaria egingo dute gaztetxean. Arratsaldean, Talka talde akus-

tikoak bertsoak eskainiko ditu. Gauean, ibilbide luzeko talde bik eskainiko dute zuzeneko gaztetxean. Kokein eta Cobra arituko dira bertako oholtza gainean. "Bluesa, rock&rolla, hard rocka... rockak bide asko ditu, eta rockari lotuta, aniztasun hori eskaintzea gustatzen zaigu guri", adierazi du Iban Berasaluze Gari Rock elkarteko kideak. Jaialdia urtero antolatzea erronka bat ere bada

antolatzaileentzat, baina, hala ere, pozik daude emaitzagaz.

Baikortasunagaz aurrera

Sei edizioren ostean, jaialdiak jarraitzaile fidelak ditu. "Rock zaleek markatuta dutelakoan gaude", dio Berasaluzek. "Taldeen gurean jasotako tratua ona gogoan izaten dute, eta horrelakoei esker jarraitzen dugu lanean", gaineratu du.



Cobra taldea.

Gremioen gida

anboto

Zurgintza

ATERPE ARBOTZAL
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA



659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza



946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pob. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

Garbiketa

AZKARGI GARBIKETAK

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goieta, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215

Dekorazioa

JAIO barnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu


Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

“Marka oso garrantzitsua da enpresa eta lurraldeentzat, eta hemen nahasmena dago”

Iñaki Azkoaga arrasatearrak 'Vasco ¿Cómo se llama tu país?' liburua aurkeztuko du Hitz liburu dendan; datorren eguaztenean izango da aurkezpena, 19:00etan, eta Jon Ander Ramosek egingo du solasaldiaren aurkezpena



Azkoaga, liburua esku artean duela.

LITERATURA • ARITZ MALDONADO
Datorren eguaztenean, hilak 20, Iñaki Azkoagak 'Vasco ¿Cómo se llama tu país?' liburua aurkeztuko du Durangoko Hitz liburu dendan. Aurkezpena 19:00etan hasiko da, eta Jon Ander Ramosek aurkeztuko du idazlea.

Nondik dator liburua idazteko ideia?
Nire bizitza laboralean luzaro egon naiz komunikazioagaz lotura duten gaiekin lanean. Marka oso garrantzitsua da enpresa eta lurraldeentzat, eta, nire ustez, hemen nahasmena handia dugu izenekin. Izen berdina erabiltzen da espazio bat baino gehiago izendatzeko, edo alderantziz. Liburuaren lehenbiziko zatian, kontraesan horiek non sortzen diren azaltzen ditut. Adibide moduan, futbol selekzioagaz gertatu zena aipatzen ditut. Lehenbizi, Euskadi deitzen zen, gero Euskal Herria eta, azkenik, Euskal Selektzioa. Gero, eremu hau izendatzeko eduki ditugun izenak biltzen ditut; 50 izenetik gora eduki ditugu: Reino de Navarra, Vascongadas, Euska-

di, Euskal Herria... denak hartu eta ordenatu egin ditut. Izen bat baino gehiago edukitzeak sortzen dituen arazoak ere aipatzen ditut.

Aurkezpenean zer ikusiko da?

Jon Ander Ramos durangarrak egingo du aurkezpena, eta nik libu-

“Izen berdina erabiltzen da espazio bat baino gehiago izendatzeko. Liburuan kontraesan horiek azaltzen ditut”

ruaren nondik norakoak azalduko ditut gero. Ikusleekin solasaldira-ko tartea ere egongo da gero. Gaiari buruz idazten nabilenetik, konturatu naiz zailtasunak ditugula buruan ditugun ideiak aldatzeko. Adin bat dugunok aukeraketa egin genuen bere garaian. Gaia aztertzea eta ulertzea da kontua, ostein erabakiak hartzeko.

Geure Durangaldea

Josune Aranguren
Zatika
Filosofoa



Arkeologia

Beste inoiz ere erabili izan dut aukera hau gomendio egiteko tartea egin diezaiegun hitzaldi-gure kultur kontsumoaren ohituretan.

Duela aste bi Aitziber González García arkeologia feministari buruz aritu zen Durangoko Museoa. Arkeologia eta historiaren jardunaldietako hirugarren eta azken hitzaldia izan zen.

Ikertzaileak argi azaldu zigun historiak antzinako aroak azaltzen dizkigunean, jakintzat, oinarritzat eta eztabaidarik gabeko egitura-tzat hartua duela ikuspegi hetero-patriarkala. Harrigarriak ziren adibideak. Gaur egungoak ere bai. Matthew Johnson irakurtzeko proposamena egin zigun: errepre-sioa sortzen duten ideologiak gaintzeko, arkeologia zein tresna baliogarria den ikasteko bibliografia ezinbestekoa, antza. Irakurriko dugu.

Arkeologiak luraren indusketetatik haratagoko jakintzabide gisa ematen dituen fruituei burua zabaltzeko garaia dugu. Araban GAS-ek—gizartearen arkeologia aztertzen duen taldeak—[https:// grupoarqueologiasocial.wordpress.com/](https://grupoarqueologiasocial.wordpress.com/) gunean hainbat azterketa-adibide ematen dizkigu arkeologiaren metodoaren bitartez egungo hainbat gertakariaren gainean. Umore tonua ere eskertzekoa da. Aldaketa sozialak, kultur sorkuntzak,... edozein fenomeno beste dimentsio bat hartzen du arkeologiaren ikuspuntutik.

Beste behin ere eskerrak Garazi Arrizabalaga Cabrerizori, Belen Bengoetxea Rementieri eta Durangoko Museoi gure burmuinean klak horiek eragiteagatik.

<http://josunearanguren.blogspot.com/>

Gorka Pagonabarragak jantzi du Euskal Herriko eskolarteko txapela

Iruri Altzerreka garaitarrak ere parte hartu zuen Sarako finalean, baina ez zuen lortu bigarren zatirako txartela

BERTSOLARITZA • J.G.

Saran jokotutako Euskal Herriko eskolarteko txapelketan Gorka Pagonabarraga bertsolari durangarrak batu zuen punturik gehien. 30. edizioa izan du aurtengoa txapelketak. 15 eta 18 urte bitarteko hamahiru gaztek parte hartu zuten finalean; egitasmoa gauzatzen duten lurralde guztiak zeuden

ordezkatuta. Pagonabarragaz batera, Iruri Altzerreka garaitarrak abestu zuen finalean.

Eskualdeko ordezkari biez gainera, Oihana Arana, Xabat Illarregi, Hartz Capot, Elixabet Etxandi, Irati Alcantarilla, Aner Peritz, Julen Etxeberri, Hodei Renteria, Ekiñe Zapiain, Aitor Ugarte eta Aroa Arrubieta aritu ziren bertsoan.



Pagonabarraga bertsolari durangarra Sarako saioan txapela jantzita.

www.plateruena.eu

<p>PLATERUENA Kafe Antzokia Landako Hiribidea, 4A DURANGO Tel.: 946 030 300 jateketa@plateruena.net</p>	<p>Ekainak 15 · 21:30ean PUB QUIZ Lehiaketa</p>	<p>Ekainak 24 · 12:30ean KONTU KANTARI 2 Antzerkia</p>	<p>Ekainak 30 · 19:00etan JORGE ETA DEIENE Dantza</p>
--	--	---	--

San Agustin Kultur Gunea
Plateruena Kafe Antzokia

Laster
Ekainaren 27tik uztailaren 21era

San Agustin KULTUR GUNEA

uda giro 2018

Durango

JAZZERUENA - ZINEMA - ANTZERKIA - DANTZA
MUSICA - CINE - TEATRO - DANZA



Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

3D PRINT

- %10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
- %5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.

BETIXU JATETXEA

- %10 asteburuko otorduetan eta kartan, bariku eta zapatu gauetan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

GIMNASIO ZIRKIN

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- Bazkide direnei 10 saioko solarium bonua doan.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10 euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15 sarreran.

ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

- %5 lehenengo erosketan.
- %10 erosten den bigarren arropan.

IURRETA KOPISTEGIA

- % 10 eskola eta bulego materialean.
- %5 musika, operari eta liburuetan.

KATXARRO JATETXEA

- %10 asteburueta menuetan.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- % 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
- %10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
- %15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.

OPEN KLUB

- %20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- Bosgarren gosaria doan.
- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

UNDARRI BIKE

- %10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
- %10 bizikletako osagarrietan.

URKI Prentsa eta paper denda

- %10 amantaletan.
- %10 jolasetan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5 liburuetan.
- %10 papergintzan.

UR URDAIBAI

- %25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



BETIXU JATETXEA

- Eguneko menuak- Asteburuko menuak
- Taldeko menua - Txuleta menua



KATXARRO JATETXEA

- %10 asteburueta menuetan.



PLATERUENA Kafe Antzokia

- Bosgarren gosaria doan.
- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



NATURALKI Belardenda-Ekodenda

- %5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
- %15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.



Anbotorenlagunak

“Taldeari zortzi bat jartzen diot gutxienez; profesionalak diren edo izan diren aurkari askoren kontra jokatu dugu”

Elorrioko Buskantza-Parra tabernak ezin izan dio Bigarren B Mailari eutsi; Iker Saenz de la Cuesta entrenatzaileak denboraldiko gakoak azaldu ditu



Iker Saenz de la Cuesta Blanco
Elorrioko Buskantza Parra Tabernako entrenatzailea
Durango | 1978

gure antzeko maila duten batzuen aurka ere kostatzen zaigu batzuetan. Lehenengo itzulian desengainu batzuk eraman genituen zenbait partidutan.

Bigarren itzulian erreakzioa heldu zen. Lehenengo garaipena lortu ostean, zer esan zenioten elkarri aldageletan?

"Heldu da azkenean", esaten genuen. Barruan pilatuta geneukan presioa askatu genuen. Zama handia kendu genuen gainera. Ordutik aurrera konfiantza hartu genuen eta gure jokoa beste txispa bat nabari zen. Gure akatsak zuzenduta, bila genbiltzan maila eskaini genuen. Etxean sekulako partidua egin genituen eta gotorleku bihurtu genuen.

Azken txanpako une batean ematen zuten mailari eusteko kapaz izango zinetela. Berbertan zenuten.

Denek esaten zuten dinamika ona hartu genuela eta mailari eusteko hautagaiak ginela. Burgosen kontrako partiduan egon zen gakoa. Pauso garrantzitsu bat emateko unea zen. Presio handia sentitu genuen eta ez genuen geurea eman.

Zer nota jartzen diozu aurtengo denboraldiari?
Taldeari zortzi bat jartzen diot gutxienez. Gu denok amateurrak gara eta profesionalak diren edo izan diren aurkari askoren kontra jokatu dugu.

Datorren urtera begira, zelan dago taldea? Fitxaketa egin duzue?

Mikel Acedo eta Ander Eguren futboletik batu ditugu. Juan Perera Mallabian ibili den gaztea ere gugaz arituko da. Bizkaiko promesarik onenetakoa da.

Datorren denboraldian emakumeen taldea berreskuratuko duzue.

Bai. Iaz talderik osatu ezinda, Sasiakoag aritu ziren batzuk. Aurten bueltan dira, taldea osatu dute eta albiste ona da denontzat. Ea luzarorako den.

ARETO FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO
Estreinakoz aritu dira hain maila altuan. Urruneko herrialde batera bizitzera joatea bezalakoa izan da: dena berria zitzaien eta batzuetan kostatzen zaien egokitzea eta emozio berriak ondo kudeatzea. Horretan izan du lanik handiena Iker Saenz de la Cuesta entrenatzaileak. Lan psikologikoa inoiz baino sakonagoa izan dela onartu du.

Aurtengo denboraldia zinemako genero batez deskribatzeko eskatuko banizu, zein aukeratu zenuke?
Thriller-a aukeratu nuke. Tentsio handiko denboraldia izan da. Une konplikatuak izan ditugu, poza ere bai... denetarik izan dugu.
Erronka berria zen zuentzat. Zuri zer kostatu zaizu gehien? Zerk eragin dizkizu buruhausteak?
Jokalarien adoreari eustea izan da nire buruhausterik handiena. Hirugarren Mailan, baloiaren jabetza

izatera eta askotan irabaztera ohituta geunden. Bigarren B Mailan, sarritan baloiaren atzetik korrika ibili behar da eta zure maila ez dela besteenaren parekoa ikusten duzu. Batzuetan jokalariek ez dute egoera horri aurre egiten jakin, kostatzen zaie, eta horrek psikologia lan etengabea eskatu dit.

“Eztabaida handiak izan ditugu, baina konpondu ditugu arazoak eta taldea indartuta ateratu da”

Beraz, mentalitate aldaketa bat eskatzen du.
Baloiaren atzetik zabiltzanean, joko erabat aldatzen da. Sarritan, aurkariaren menpe egongo zarela barneratzea ez da erraza. Prozesu

bat da eta jokalariek batzuek besteek baino arinago egiten dute hori.

Egoera zailenetatik ikasten da gehien. Zer ikasi duzue aurten?

Taktika eta estrategia asko landu ditugu. Arlo horretan entrenamenduetan egiten den lanak garrantzi handia du. Aurkariaren bideoak ikustea eta aztertzea ere inportantea da maila honetan. Entrenatzaileok bideoak trukatu ditugu.

Sare sozialetan aipatzen zenuen estres handiko momentuak bizi izan dituzula. Zerk bultzatzen zaitu aurrera jarraitzera?

Urte asko daramatzat hemen eta jokalariek lagunak ditut. Konfiantza horrek eztabaidak dakartza, eta inoiz handiak izan ditugu. Batzuetan ez dakizu zure lana ondo egiten zabiltzan. Dudak sortzen zaizkizu. Bizitza pertsonalak edo areto futbolak, balantzan pisu handiagoa zerk duen pentsatzen duzu. Baina konpondu dira arazoak

eta indartuta irten gara. Betidanik proiektu interesgarria iruditu zait hau. Hasi nintzenetik, potentziala ikusten nion. Klubean eta elorriarekin gustura nago. Entrenatzaile moduan, zuzendaritzan... Lan asko izateak erre egiten du eta helduko

“Sarritan aurkariaren menpe egongo zarela barneratzea ez da erraza, eta jokalariek batzuei kostatzen zaie”

da ez jarraitzea erabakiko dudana unea, baina oraindik indarragaz sentitzen naiz.

Bazenekiten erronka zaila zela, baina espero zenuten lehenengo garaipena denboraldi erdia pasatutakoan lortzea?

Ez. Talde askoz hobeak dira, baina



GOIMEK

GOIMEK S.COOP.
HONAKO HAU BEHAR DA
ARTEZKETA ZILINDRIKORAKO LANGILEA

FUNTZIOAK:

• Pieza zilindrikoen artezketa eta egiaztapena.

ESKAKIZUNAK:

- Titulazioa: Goi mailako heziketa zikloa, Mekanizazio Bidezko Produkzioa edo baliokidea.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanpostu batean baloratuko da.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna
- Egiaztapen tresnak erabiltzen jakitea.

ESKAITZEN DA:

- Berehalako lanean hastea.
- Esperientziaren eta gaitasunen arabera soldata.

EPEA: 2018 ko ekainaren 30a baino lehen.

Interesa dutenek, Giza Baliabideen Departamentura bidali dezakete beraien Kurrikuluma.

ecarballo@soraluce.com

Igor Urien pilotu abadiñarrak garaipen bi lortu ditu hilabeteko epean

Alcañizen jokaturako Espainiako Erresistentzia Txapelketan eta Jatako igoeran (Bakio) berak egin zituen denborarik onenak. Udanako igoera du hurrengo erronka, ekainaren 23an



Igor Urien Jatako igoeran. Euskadiko Automobilismo Federazioa.

AUTOAK • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Igor Urien pilotu abadiñarra sasoi betean dago eta azken hileko lasterketarako emaitzek argi erakusten dute hori. Maiatzaren 19ko asteburuan Alcañizen jokaturako Espainiako Erresistentzia Txapelketan garaipena lortu zuen, Gabriel Alonso bikotekide zuela. Ekaineko lehenengo asteburuan, berriz, Aiako mendiko lasterketan bigarren sailkatu zen eta joan zen asteburuan Jatako igoera irabazi zuen.

Urien pozik agertu da lortutako garaipenekin eta, momentuz, indartsu dagoela eta horrela jarraitzea espero duela aitortu du.

Bakion jokaturako Jatako igoeran abadiñarra Citroën AX E2 autoagaz lehiatu zen eta segundo

biko alde atera zion bigarren sailkatuari. "Bakioko tartea aproposa zen gure autoarentzat. Bide estua da eta Porcheak eta potentzia handiko autoak txarragoak dira horrelako bideetarako. Autobidean ez nuen batere aukerarik izango haien aurka, ezingo nieke jarraitu, baina ibilbide sigi-sagatsua izan genuen, eta menderatu egin nituen", adierazi du pilotu abadiñarrak.

Orain, Euskadiko mendiko txapelketako lasterketak lehiatzen ari

Etiket kanpoko lasterketetan lehiatzea du helburu Igor Urien pilotu abadiñarrak

da Igor Urien. Hala ere, proba bitan parte hartu ez zuenez, sailkapen nagusia lehiatzea "ezinezkoa" dela esan du. "Euskadiko mendiko txapelketako lehenengo proba biak Espainiako txapelketako probekin batera izan ziren, eta, beraz, ezin izan nuen parte hartu. Gure asmoa, lehen momentutik, kointziditzen ez zuten lasterketetan ahalik eta ondoen aritzea zen", azaldu du.

Ekainaren 23an Udanako igoeran izango da Igor Urien, eta abadiñarrak badaki han irabaztea zer den. Bere hurrengo helburuez galdetuta, kanpoan lehiatzea gura lukeela adierazi du. "Etxean lehiatzea polita den arren, beti izango dut hemengo lasterketetan aritzeko denbora", amaitu du pilotu abadiñarrak.

Iñigo Uriel eta Naroa Izurza zornotzarrek Euskadiko Bolo Txapelketa irabazi dute

Urielek, Gorospek eta Zearretak lehia estua mantendu zuten gizonetan eta puntu bakarraren aldean egon zen

BOLOAK • J.D.

Zornotzako Gure Kirolak bolatokiak Euskadiko bolo jokalaririk onenak batu zituen joan zen zapatuan. Zornotzak tradizio handia du bolo jokoa eta etxeokak geratu ziren txapeldun: San Antonio elkarteko Iñigo Uriel eta San Antonio taldeko Naroa Izurza.

Gizonetan emozioa izan zen nagusi, Urielengandik puntu bakar batera geratu zirelako Beñat Gorospe eta Iker Zearreta. Emakumeetan Izurzak sei puntuko alde atera zion Josune Sarrionandia bigarren sailkatuari eta 15 puntuko Beñat Isasi hirugarren tokian sailkatu zenari.



Iñigo Uriel eta Naroa Izurza, Euskadiko onenei dagokien txapela jantzita.

Rio de Orok mendi martxa eta lasterketa antolatuko ditu etzi

MENDIA • J.D.

Kirol Errota atletismo klubarekin batera Rio de Orok antolatuko duten ekimenen batutako dirua herri saharauari laguntzeko proiektuetara bideratuko dute.

'Yalah-Yalah' izena jarri dioten proba Durangoko Tabiran hasi

eta amaituko da domekan. Mendi martxa 09:00etan hasiko da eta bi ibilbide daude aukeran: 15,5 eta 9 kilometroko bana. Lasterketa 10:00etan ekingo diote, 15,5 kilometroko ibilbidearekin. Izenematea egunean bertan ere egin daiteke 12 eurotan.

Parte hartzaileek 'Yalah-Yalah' —'benga-benga' edo 'goazen-goazen' esan gura du hasannia dialektoan— jartzen duen kamiseta bat eskuratu ahaliko dute.

Asteko kirolaria



TXABER ZABALA BILBAO

Lezama, Pilota

Joan zen asteburuan hiru partidutik hirurak irabazita, Zornotzak ia lortuta du Bizkaiko herri arteko txapelketako finalerako txartela.

"39 urtegar herri arteko txapelketako finalean egotea gauza handia da niretzat"

Txaber Zabala pilotaria Zornotzako taldeagaz dabil Bizkaiko Herri Arteko txapelketan

Orozkoren kontra joaneko hiru partidua irabazita, dagoeneko hanka bat txapelketako finalean duzuela esan daiteke.

Finalean hanka eta erdi dugula esango nuke. Hala ere, argi dago edozer gertatu daitekeela. Hurrengo partiduetan dena emango dugu berriro ere, Zornotza finalean egon dadin.

Nola joan ziren aurreko asteburuko partidua?

Ederto, egia esan. Kanporaketa parekatua eta partidua oso gorrak izango zirela aurreikusten genuen. Kadeteek primeran jokatu zuten, baita jubenilek ere. Jubenilek, gainera, egurra eman zieten aurkariei.

Zuek ere nagusitasunez irabazi zenuten.

Faboritoak ginen eta ez genuen hutsik egin. Gainera, ezagutzen genituen aurkariak, eta teorien ba-

genekien geuk irabaziko genuela. Hala ere, gauzak aldatu egiten dira askotan. Kadeteetan, esaterako, Orozkokoak ziren faboritoak, baina gure gaztetxoek irabazi zuten. Partidu itzela jokatu lortu zuten garaipena.

2001az geroztik Zornotza ez da herri arteko txapelketan egon eta aurreko zornotza, okerrik ezean, hantxe egongo zarete. Zuretzat zer suposatzen du horrek?

Ez da zerbait berria niretzat, Lezama ere jokatu izan ditut-eta finalak. Baina, egia esan, 39 urtegar herri arteko txapelketako finalean egotea gauza handia da niretzat. Gainera, txapelketako finalak Zornotzan jokatu dira eta herrian egoten den giroagaz etxeko taldea bertan egotea polita litzateke. Hori gutxi balitz, badakit nire pilotari ibilbidea laster amaituko dela eta, beraz, polita litzateke final baten ostean erretiratzea.

Erretiroa duzu buruan?

33 urte daramatzat pilotan jokatzen eta, seguruenik, uda ostean utzi egingo dut. Hala ere, pilota munduagaz lotuta jarraituko dut, Durangon entrenatzaile moduan nabil eta.

Durangoko Kulturalari Kanaria Handira joatea egokitu zaio igoera faseko azken kanporaketan

San Fernando taldea da azkenengo koska Bigarren B Mailara igotzeko bidean; joaneko partidua etzi jokatuko dute, kanpoan

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kulturalak gura baino urrunago joan beharko du azken kanporaketan. Zozketak Kanaria Handira bidali du eta hango San Fernando taldearen kontrako partidua bietan erabakiko da nork jokatuko duen Bigarren B Mailan hurrengo denboraldian.

Joaneko partidua han jokatuko dute, domeka honetan. Itzuliko neurketa Tabira futbol zelaian izango da, astebete geroago. 2019an ehun urte beteko dira Kulturala sortu zenetik eta mendeurrena Bigarren B Mailan ospatzea oparirik politena litzateke klubarentzat zein zaleentzat.

Baina, horretarako, borrokan jarraitu behar dute, orain arte aritu diren moduan. Joan zen asteburuan Madrilgo Alcala taldea kanporatu zuten, etxean 2-0 irabazita.

Tentsio handiko partidua izan zen, zelaian zein harmailetan, Alcalako zale ultren bisitarengatik. Kulturalak bigarren zatiko hasieran eta amaieran sartu zituen gol

biak. Oro har, aukera askorik bako partidua izan zen eta talde bietako jokalarien artean tira-bira bat baino gehiago izan zen, falta gogor batzuen ostean. Epailak ahal izan zuten moduan kudeatu zuten egoe-

ra. Bestalde, harmailetan ere bero-bero egon zen giroa. Izkina batean Alcalako zale ultrak batu ziren, eta hegal berean, baina beste izkinan, hemengo hainbat gazte Tabira Army izenagaz. Zalego bien artean

ertzainak kokatu ziren. Kontua ez zen irainez eta oihuez haratago joan. Beste aldean, zelaiko harmaila nagusian batutako zaleek etengabe animatu eta hauspotu zuten taldea.



Durangoko Kulturala taldeko jokariak Alcalaren kontrako lehenengo gola ospatzen. Luis Iturrioz.

Adituaren txokoa

Eneritz Iturriaga Mazaga
Txirrindulari ohia



Kirola eta estresa

Egun hauetan askotan entzuten nabil, bai txirrindularitzan bai motor eta auto lasterketetan arrisku handia dagoela eta pertsona asko hiltzen direla. Ondorioz, guraso askok ez dietela seme-alabei horrelako kirolak egiten uzten.

Egia da kirol hauek arrisku gehiago dutela, igerilekuan edo gimnasio batean egiten direnekin alderatuta, baina esan beharra daukat bagaudela pertsona batzuk ezin dugunak kirola leku itxietan egin. Eta hausnarketa hau beste ikuspuntu batetik aztertzea gustatuko litzaidake.

Ez al da hobe izango, koitxean gidatzen goazenean sarritan darabilgun presa alboratzea, eskuan izaten dugun mugikorra itzaltzea, hau da, estresa kudeatzen asmatzea eta gidatzeko zereginean erabat zentratzea? Inork ez du horretan pentsatzen. Ez al zaizue inoiz gertatu, jateko astirik barik, egiten gabiltzana ondo dagoen pentsatzeko benetako denborarik hartu barik, alde batetik bestera ibiltzea? Niri gertatu zait. Eta badakizue zer? Kirolak estres hori guztia baretzeko modua eskaintzen du. Mundua une batean geratzeko eta gustuko duguna egiteko irtenbide bat da. Une horietan hausnartuko dugu ondo eta jabetuko gara non gauden eta zer egiten gabiltzan. Beti etorkizunean pentsatzen, ez baitugu unean unekoa gozatzen. Eta hori da bizitza.

Beraz, utzi kexatzeari eta jarri zuten bizitzan jarduera fisiko bat, berdin da zein, ze nik 27 urte eta milaka kilometro daramatzat bizikleta gainean eta oraindik hemen nago, eta jakizue bizikleta gainean zoriontsua naizela. Hartu patxada, bizitza laburregia da gehiegizko abiaduran ibiltzeko.

Munduko txapelketan izango da aurten ere Gurutze Frades

Australiako Ironmanean batu ditu behar zituen puntuak

KORRIKA • J.D.

Hirugarren urtez jarraian Ironmanen Munduko Txapelketarako sailkatu da Gurutze Frades triatloilari iurretarra. Emaizta handi bitan oinarritu du aurtengo sailkapena: Hegoafrikako seigarren postua apirilean eta Australiako laugarrena, joan zen domekan. Batean zein bestean batutako puntu sortari esker, urriaren 13an Konan (Hawaii) jokatuko den Munduko Ironman Txapelketan egongo da beste behin iurretarra.



Gurutze Frades, Australian.

Igotzeko aukerei eutsi ahal izateko, lurretakok ezin du galdu

Asteburu honetan Ariznabarra taldearen kontra jokatuko du Hirugarren Mailarako igoera faseko azken partidua

FUTBOLA • J.D.

Lurretakok galdu egin zuten igoera faseko lehenengo partidua joan zen domekan. Ordiziak hiru puntuak eraman zituen Larrakozelaitik (0-1), partidua praktiko bat jokatuta. Gipuzkoarrek orain arteko partidua irabazi dituzte eta ligaxkako lehenengo postua segurtatuta dute.

Iurretakok eta Ariznabarrak, —biak porrot banagaz— elkarren kontra jokatuko dute asteburuan,

Araban. Lurretakok ezin du galdu. Izan ere, Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailara igoko den euskal talde kopuru berdina igoko da Ohorezko Mailatik Hirugarreneira eta, une honetan, talde bi igo daitezke Bigarren B Mailara: Durangoko Kulturala eta Portugalete. Alaves B kanpoan geratu da. Horregatik, lurretakok beharrezkoa du igoera fasea bigarren amaitzea mailaz igotzeko aukerekin jarraitu gura badu.

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN
MACOBER
Chimeneas
Comarcas MACOBER

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

DIBA
KOOPERATIBA

Durungaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



AMBOTO
 INMOBILIARIA
 Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ETXETXO
 G. INMOBILIARIA
 F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
 www.inmoetxetxo.com



Inmobiliaria del Duranguesado
 Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
 www.inmoduranguesado.com
 inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
 AGENCIA INMOBILIARIA
 Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423
 48200 DURANGO • Bizkaia

//ETXEBIZITZAK ALOKAIURUAN
DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 600€-tik hasita.

//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO. Laubideta kalean. Pare gabeko pisua, 3 logela, komun bi, sukaldia, egongela, izugarritzko terraza 200 m2 koa, garaje bi, ganbara eta trastelekua.

DURANGO. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m2 ganbararekin.

DURANGO. Astarloa kalean. Hiru logelako pisua, Egongela balkoiarekin, komuna eta ganbara. 90 m2.

DURANGO. San Fausto. Logela biko pisua, Sukaldia, bainugela eta logela. Merkea

BERRIZ. Etxebizitza guztiz berrikoa, 3 logelarekin, bainugela, egongela, sukaldia balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldia, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, bainugela, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldia esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldia, egongela balkoiarekin, guztiz berriatua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI
ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
MAÑARIA. Izugarritzko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berriatutako, 3 hektareako lursaila. Prezioa 160.000 €

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriatutako. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatutako.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

//BULEGOAK ALOKAIURUAN
ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

//LOKALAK ALOKAIURUAN
 Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA. 460 m2-ko lokala salgai, Bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 3 logela
 2 komun



ERDIGUNEA: Pisu altua, 3 logela. Bainugela Egongela balkoiarekin. Eguzkitsua. Dena berria.

185.000€

DURANGO 3 logela
 garajea



IBAIZABAL: APARTAMENTO. Erdi berria. Logela 1. Sukaldia esekitokiarekin. Ganbara eta garajea.

KONTSULTA EZAZU PREZIOA

DURANGO 2 logela



ASK. ETORBIEA. 82m. 2 logela (lehen 3 logela) Sukalde-jangela. Egongela. Terraza.

177.000€ / Neg

DURANGO 1 logela
 garajea



AVDA. LANDAKO 3 logela 2 bainugela. Sukaldia. Egongela. Terraza. Ganbara Hegoalde. Garajea eta trastelekua aukeran.

196.000€

DURANGO 3 logela
 2 komun



ANDRA MARI: 90m. 2 Logela 2 Bainugela. Sukaldia. Despentsa. Egongela. Igogailua. Ganbara

PREZIO MERKEAGOA

DURANGO 3 logela



ARAMOTZ: 3 Logela. Bainugela. Sukaldia - Egongela. Dena kanpora begira. Zonalde lasaia

140.000€

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 4 logela
 120 m²



ANDRA MARI: 120 m2 : 4 logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Ganbara komunitario. Berriatutako.

250.000 €

DURANGO 3 logela
 2 komun
 79,24 m²



SAN IGNACIO: Oso eguzkitsua. 3 logela, egongela, sukaldia jarrita, esekitokia, bainugela, komuna, balkoia, garajea eta trasteroa

235.000 € / Neg

DURANGO 2 logela
 1 komun



ASKATASUN ETORBIDEA : DUPLEXA 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela, 2 balkoi eta ganbara

192.000 €

DURANGO 1 logela
 45,30 m²



ARRILUZA: Apartamentu dotorea 45,30 m2 logela 1, sukalde- jangela, egongela eta bainugela. Garajearekin.

169.000 €

MATIENA 3 logela
 2 komun



MATIENA: 3 logela, egongela, sukaldia jarrita, 2 bainugela, gangara eta garajea aukeran.

180.000 €

IURRETA 3 logela



IURRETA: 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela jarrita, kalefazioa, igogailua, hornitura.

105.000 €

DURANGO GARAJE
 ETA GANBARAGAZ 3 logela
 82 m²



Komentu kalea 82m2 erabilgarri, 3 logela, sukaldia, egongela, 2 bainugela, balkoia, ganbara eta garajea. **255.000€**

255.000€ +BEZatik aurrera.

DURANGO
ANBROSIO MEABE 3 logela, egongela, sukaldia balkoiagaz, bainugela 2, igogailua, kamarotea eta garaje itxia **270.000 € / E.E.Z=F**

BARRENKALEA 2 logela, sukaldia, egongela eta bainugela **126.300 € / E.E.Z= G**

ERRETENTXU 4 logela, sukaldia, egongela, bainugela eta balkoia **210.000 € / E.E.Z=E**

Erretentxu 3 logela, sukaldia, egongela, 2 bainugela eta balkoia **205.000 € / E.E.Z=E**

Ezkurdi 4 logela, sukaldia, egongela eta 3 bainugela **321.500 € / E.E.Z=F**

Komentukale Logela 1, sukalde-egongela, bainugela eta ganbara. **175.000euro / E.E.Z=F**

Landako Etorbidea 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi eta garajea. **LEHEN 267.800 € ORAIN 255.000€ / E.E.Z=E**

Mikeldi 3 logela, sukaldia, egongela, 2 bainugela komuna, garajea eta ganbara **Lehen 270.000€ Orain 260.000 € / E.E.Z= E**

Murueta-torre 3 logela, sukaldia, egongela, 2 bainugela, balkoia, garajea eta trastelekua **290.000 € / E.E.Z=E**

Plateruen Plaza 4 logela, sukaldia, egongela, 3 bainugela, trastelekua eta garajea. **Lehen 275.000 € / Orain 260.000 € / E.E.Z=E**

Santasusanoste kalea 2 logela, sukaldia, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, ganbara eta garajea **240.000 € / E.E.Z=E**

Sasikoa 4 logela, sukaldia, egongela, 2 bainugela, balkoia, garajea eta ganbara **220.000 € / E.E.Z=G**

ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela, igogailua. **150.000 € / E.E.Z Bidean**

ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela eta garajea. **695.000 € / E.E.Z= E**

//ABADIÑO
ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z Bidean**

ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, garajea eta trastelekua. **175.000 € / E.E.Z=E**

FERIALEKU 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta garajea. **Lehen 190.000 € / Orain 175.000 € E.E.Z=G**

ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela eta garajea. **309.000 € / E.E.Z= F**

//BERRIZ
ANDIKONA AUZO Berreraikitze baserria, **460.000€**

BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldia, egongela, bainugela eta balkoia **120.000 € / E.E.Z= F**

ELIZONDO AUZO 3 logela, sukaldia, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera **142.000 € / E.E.Z= G**

//ELORRIO
ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldia, egongela, 2 bainugela **199.000 € / E.E.Z= E** Garaje itxia aukeran.

SAN PÍO Logela 1, egongela, sukaldia, bainugela, komuna eta igogailua **179.900€ / E.E.Z=G.**

//OTXANDIO
GOMILAZ AUZO Baserria: Jatetxe eta etxebizitza 5 hektareako lurzorua **1.200.000 € / E.E.Z= G**

GONBILAZ AUZO Baserria, **350.000€**

//BERRIAK
DURANGO
ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta, igogailua. **180.000 / E.E.Z=F**

ELORRIO
SAN FAUSTO KALEA 400m2 inguru bi solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldia, jantokia, bainugela 2 eta portxea. 2.800m2 inguruko lur sailarekin. **630.000 / E.E.Z=E**

IURRETA
ZUBIAURRE KALEA 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta igogailua. **100.000 / E.E.Z=E**

Botikak

BARIKUA, 15 · 09:00-09:00

IRIGOIEN

Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO LUIS

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 16 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL

Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

CAMPILLO

Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA

Muruetatorre 2C - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

BALENCIAGA

Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

DE DIEGO

Intxaurren 22. - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE

San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA

Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL

Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

09:00-14:00

IRIGOIEN BIXENTE

Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO LUIS

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

DOMEKA, 17 · 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO LUIS

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 18

· 09:00-09:00

UNAMUNZAGA

Muruetatorre 2C - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO LUIS

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR

Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE

San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 19

· 09:00-09:00

BALENCIAGA

Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO LUIS

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR

Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE

San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 20

· 09:00-09:00

BAZAN DIAZ

Uribarri 5 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO LUIS

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR

Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE

San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 21 · 09:00-09:00

DE DIEGO

Intxaurren 22. - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO LUIS

Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR

Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE

San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Aretx (724. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Ekainaren 11n Mataderoko danon amama dan **Juanita** Urabezubia Uribarrik 91 urte bete ditu. Mille esker auzokide guztion partez eta holan jarraitu 100 urte bete arte, mille mosu.



Matzel Eguen Belar! Tipi-tapa 90 urte!! Zorionak eta eskerrik asko haundi bat etxekoan partez!



Zorionak etxeko artistari! Gaur bederatzi urte bete ditu eta topera ospatuko dugu. Musu piloa etxeko guztion partetik!



Zorionak, **Martzel**! Jarraitu irribarre polit horrekin. Patxo pottolo bat denon partez.



Zorionak, **Maddi**! Urtero lez, ikasturte amaierarekin batera gure etxeko "sorginaren" urtebetetzea dator. Muxu pila bat etxekoan partez. Ondo pasa egune!

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 18° / 12° ☁️

ASTELEHENA 🌧️ 17° / 12° ☁️

EGUAZTENA 🌧️ 23° / 14° ☁️

DOMEKA 🌧️ 18° / 12° ☁️

MARTITZENA 🌧️ 20° / 14° ☁️

EGUENA 🌧️ 25° / 15° ☁️

katerin
ardoak
iñaki
uribe



Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saLtsan.com



OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ



Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Zure
iragarkia
jarri nahi
duzu?

94 621 79 02

anboto
komunikabideak

“Fisiko bat ez ezik, oinak lurrean izatea funtsezkoa da modelo izateko”

2018ko Bizkaiko Anderearen banda jarriko diote bihar Leire Merinori, Madrilén. Gero, Espainiako Andere eta Jaunen Edertasun Sariketan parte hartzeko aukera izango du.

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Modelo moduan jarduteko prestatzen ari da Leire Merino. Ikus-entzunezko komunikazio ikasketekin uztartu gura du hori. Selektibitatea egin berri du, eta, zapatuan, 2018ko Bizkaiko Andere izendatuko dute. Urte bi baino gutxiago dira lehenengoz desfilatu zuela Durangon, Fashion Gauan. Cibelesen eta Guggenheimen ere desfilatu izan du gazte durangar honek.

Madrilen (Espainia) jarriko dizute, zapatuan, Bizkaiko damaren banda. Nola hartu duzu berria?

Sare sozialen bitartez izan nuen lehiaketaren berri eta izena ematea pentsatu nuen. Astebetara deitu zidaten, aukeratu egin nindutela esateko. Esperientzia polita izan zitekeela iruditu zitzaidan. Inoiz ez naiz izan neska bereziki deigarria, eta erakutsi nezake ni bezalako neskok ere badugula modelo izateko ametsa betetzeko aukera. Inguruak ere asko poztu dira.

Lehenengoz aurkeztu zara edertasun sariketa batera?

Ez. Miss Gran Euskadi sariketan ere parte hartu dut aurten. Esperientzia polita izan zen hura ere. Urduri joan nintzen, ez nekien-eta zegaz egingo nuen topo. Lehenengo edertasun sariketa izan nuen. Nuen guztia ematen saiatu nintzen eta oso ondo pasatu nuen.

Modu berezian prestatu zara?

Modelo agentzia batera joaten naiz Bilbora eta arlo askotariko eskolak jasotzen ditut: argazki-saioterako edo pasarelan desfilatzeko prestatzen naute, ile-apainketa eta makillaje eskolak ere jasotzen ditut, nutrizio gaiak... Arlo guztietan prestatu beharra daukagu, ez daki-gu-eta zeri egin behar diogun aurre.

Noiz hasi zinen modelo lanetan?

Pasarela batera 2016an igo nin-

zuzen lehenengoz, Durango Fashion Gauan. Askok gustatu zitzaidan esperientzia, eta prestatzen hasi nintzen. Urte eta erdi geroago Madrilén nengoan desfilatzen. Birritan igo naiz pasarelara Cibelesen. Jendeak uste du argazki-kamera aurrean jartzea baino ez dela, argazki batzuk atera eta kito. Ikusten ez den prestaketa bat dago atzean. Askok zaindu behar da, hitz egiten jakin... portaera bat da.

Plaza handia izango da Cibeleseko pasarela.

Bai! Ni bezalako modelo gazteekin eta maila handiko modeloekin desfilatzeko aukera izan dut. Bilboko Guggenheim museoan ere desfilatu izan dut, Jon Fiz diseinatzailearentzat. Itzela izan zen hura.

Nolakoa izan zen pasarela batera igo zineneko momentu hura?

Urduritasun handia sentitu nuen, baina, aldi berean, horretarako baliu nuela sentitu nuen.

Zein neurritan da zuretzat garrantzitsua edertasuna?

Nahiko pertsona umila naiz. Ez zait gustatzen nabarmentzea. Fisikoa edo edertasuna baino garrantzitsuagoa da egoten jakitea. Fisikoak iraungipen data du eta nortasunak ez, zugaz izango duzu beti.

Nortzuk izan dira zure erreferenteak moda munduan?

Euskal Herrian, Jon Kortajarena. Itzela da! Bere jarraitzaile handia izan naiz. Nahiko zaila da bera heldu den mailara heltzea, baina...

Edertasun sariketarako bitartekoa dira modelo izateko?

Ez dut uste lotuta daudenik. Ez dute zerikusirik. Modelo izatea lan profesional bat da, ahalegin gehiago eskatzen duena, bestelako prestaketa duena. Ni modelo izateko ari naiz prestatzen, hori dut helburu. Orain dut horretarako aukera.

Zer behar da, zure ustez, modelo izateko?

Fisiko bat ez ezik, oinak lurrean izatea funtsezkoa da. Askok uste dute agentzian izena eman eta segituan mailarik gorenean arituko direla. Gauzak ez dira horrela. Hainbat gauza ikasi behar dira. Argi izan behar duzu ezezkoak jasoko dituzula. Mundu hau oso gogorra da eta ez zaituzte beti oso ondo tratatuko. Oso argi izan behar dugu hori, eta ez da erraza. Askotan jausi behar da erraz altxatzen jakin ahal izateko.

Modelo izan gura duten gazte horiei zein gomendio emango zenieke?

Oinak lurrean izatea. Ez da bide erraza eta ezin zara hortik ibili dena dakizulakoan. Ametsa baduzu, aurrera egin, baina umiltasun osoz. **Neurriekin eztabaida handia dago moda munduan...**

Oraindik badaude diseinatzaileak neurri zehatzeko modeloak gura dituztenak, baina gaia apur bat normalizatu dela uste dut. Hor daude Curvi modeloak, gero eta arreta gehiago dutenak, eta Miss Grand Euskadi sariketan, adibidez, neurri askotariko neskek parte hartu zuten. Horrela izan behar dela uste dut.

Zein da zure indargunea?

Lagunen eta familiarren babes handia dut. Horrez gain, nire nortasuna dut indargunerik handiena. Umila naiz eta badakit egoera desberdinen aurrean egoten. Nire ametsa modelo izatea da eta horrek aurrera egiten motibatzen nau.

Selektibitatea egin berri duzu. Nola joan da?

Ondo! Nahiko lasai eraman dut. Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi gura dut. Kamera baten aurrean egoteak erakarri egiten nau. Mundu bi horiek uztartu gura nituzke.

Leire Merino Calvo
2018ko Bizkaiko Dama
Durango | 2000

Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren Irakaslea



Eskerrik asko eta zorionak II Sakelan diru gutxi, baina kolkoa alaitasunez beterik zutenez domeka eta herri desberdinetako jaietan, soinujoleari pezeta bat ordaindu ondoren, errebentatu arte dantzari eta bukatu ondoren denak pozik etxera.

Hainbeste urte elkarrekin pasa arren mirestekoa da elkarri dioten kariñoa eta bizipoza. Egunero, oheratzerakoan, egunean zehar egindakoaren errebasoa egin eta hurrengo eguna planifikatzen dute eta otoitz eginez bukatuko dute eguna.

Ezinezkoa da beraien bizitza orrialde baten laburtzea, baina tokiak mugatzen nauenez beste egun baterako utziko dut istorio honen jarraipena.

Bukatzeke, bertso hauek beraien eta anonimo horien guztien ohorez:

*Baldomero eta Inaxi
Urte askotxo dira
Elkarbizitza hortan
Matea, Bixente,
batu zinetela,
hiru seme-alaba,
laukote honi esker
garai luze honetan
hauen ondorengoak
zabiltzate tente,
ekintza mardula,
beste bi iloba,
aspaldian joan arren
zuek egindakoa
ezin dugu ahaztu
beti bijilante,
ezta izan ustela,
Errusiako lora,
gaur zuek zoriontzeko
jarraitu egizue
biontzako bihotzez
gurekin presente
luzaro horrela
gure esker ona*

Seme-alaba eta iloben partez gure alde egin eta egiten ari zaretenagatik eskerrik asko, zorionak eta segi historia egiten.



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA: Ekainaren

15etik ekainaren 29ra.

Matrikula egiteko ordutegia:

Astehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiralean: 09:00-13:00